DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA
DSS2016.EU

URRIA OCTUBRE
OCTOBRE OCTOBER
#Donostia2016



'TRATOS'
URRIAK 6-9 OCTUBRE 6-9 OCTOBRE 6-9 OCTOBER 6-9

Cervantes, berraragitua
Cervantes, reencarnado
Cervantes, réincarné
Cervantes, reincarnated

08 'Karta zuria':
'Carta blanca':
Jone San Martin

12 'LaPublika':
15 orduko irratsaioa
15 horas de radio

18 'Dance2gether':
Dantzari gazteen ordua
Jóvenes bailarines a la palestra

Urriko jarduera guztiak Todas las actividades de octubre Toutes les activités d'octobre All the activities in October



BABESLEA / PATROCINADOR
DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA

IBERDROLA

Azaleko argazkiaren egilea
Autor de la foto de portada
MarcosGpunto

2016 URRIA
2016 OCTUBRE

AURKIBIDEA
ÍNDICE

4 'TRATOS': 'LEPANTOKO BESAMOTZ' BERRIAK LOS NUEVOS 'MANCOS DE LEPANTO'
6 ELKARRIZKETA ENTREVISTA: ERNESTO CABALLERO
8 'ELKARRIZKETAK': JONE SAN MARTINEN 'KARTA ZURIA' 'CONVERSACIONES': LA 'CARTA BLANCA' DE JONE SAN MARTIN
10 'ELKARRIZKETAK' 'CONVERSACIONES'
12 'LAPUBLIKA': 15 ORDUKO IRRATSAIOA 15 HORAS DE PROGRAMACIÓN RADIOFÓNICA
13 MUSIC BOX: LOS PUNSETES ETA SVPER LOS PUNSETES Y SVPER
15 'ERRONKAK': ETORKIZUNARI BEGIRA 'DESAFÍOS': MIRANDO AL MAÑANA
16 PROTAGONISTAK PROTAGONISTAS
17 IRITZIRAKO TXANDA TURNO DE OPINIÓN: GORKA URRUTIA
18 'DANCE2GETHER': ELKARREKIN DANTZATU, ELKARREKIN BIZI BAILEMOS JUNTOS, VIVAMOS JUNTOS
19 'ENERGIA-OLATUAK': AZKEN 'OLATUETARAKO' DEIA 'OLAS DE ENERGÍA': COGE LAS ÚLTIMAS 'OLAS' DEL AÑO
20 'BAKE-ITUNA': 'GERNIKA' ETA SERT 'TRATADO DE PAZ': 'GUERNICA' Y SERT
21 FORMAZIOA: DOAKO LAU IKASTARO FORMACIÓN: CUATRO CURSOS GRATUITOS
22 'EUROPA TRANSIT': MUGAK BIZITOKI CONVIVIR CON FRONTERAS
23 ATSEGIN HANDIZ CON MUCHO GUSTO: ANDREA ARRIZABALAGA
24 KRONIKA CRÓNICA: BEGOÑA DEL TESO
25 SARE SOZIALAK REDES SOCIALES
26 DATORRENA: AZAROA LO QUE VIENE: NOVIEMBRE

+ ERDIKO ORRIALDEETAN: URRIKO AGENDA PÁGINAS CENTRALES: AGENDA OCTUBRE
PAGES CENTRALES: AGENDA OCTOBRE CENTRE SECTION: OCTOBER PROGRAMME

ALDIZKARIKO IKUR-KODEA CÓDIGO DE SIGNOS DE LA REVISTA LÉGENDE GUIDE OF KEYS

PROIEKTUA DIZIPLINA Ekitaldi mota
PROYECTO DISCIPLINA Tipo de actividad
PROJET DISCIPLINE Type d'activité
PROJECT DISCIPLINE Type of activity

Lekua Lugar Lieu Location
Eguna Día Date Date
Ordua Hora Heure Time
Plazak Plazas Capacité Seats
Prezioa Precio Prix Price

Eragileak Agentes Promoteurs Promoters
Traola Hashtag Hashtag Hashtag
Webgunea Página web Web Website
Twitter Twitter Twitter Twitter
Facebook Facebook Facebook Facebook

Instagram Instagram Instagram
Informazio gehigarria
Más información
Informations supplémentaires
Additional information

DONOSTIA 2016 FUNDAZIOAREKIN HARREMANETAN JARTZEKO/
CONTACTO CON LA FUNDACIÓN SAN SEBASTIÁN 2016
Calle Easo kalea 43
20006 Donostia / San Sebastián
info@dss2016.eu
T +34 943 483 344

KOORDINAZIO EDITORIALA, ERREDAKZIOA ETA ZUZENKETA, ITZULPENA, DISEINU GRAFIKOA ETA ARGAZKIAK:
COORDINACIÓN EDITORIAL, REDACCIÓN Y CORRECCIÓN, TRADUCCIÓN, DISEÑO GRÁFICO Y FOTOGRAFÍAS:
DSS2016EU Iantaldea Equipo DSS2016EU /
Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea

INPRIMAKETA/IMPRESIÓN
Zeroa Multimedia

PROGRAMA HONETAN JASOTAKO INFORMAZIOAK ALDAKETAK IZAN LITZAKE. MESEDEZ JOAN GURE WEB ORRIRA (WWW.DSS2016.EU) INFORMAZIO EGUNERATUA LORTZEKO.
LA INFORMACIÓN RECOGIDA EN ESTE PROGRAMA ES SUSCEPTIBLE DE EXPERIMENTAR CAMBIOS. POR FAVOR, CONSULTA NUESTRA WEB (WWW.DSS2016.EU) PARA OBTENER INFORMACIÓN ACTUALIZADA.

LG zk./Dep.Leg. SS 26-2016
17.000 ale/ejemplares 0,17 € ale bakoitza/unidad (BEZ barne/IVA incluido).

DSS2016EU LIZENTZIA
CC-BY-SA Creative Commons Aitortu-Partekatu
Gure edukia kopiatu, zabaldu eta nahasteko libre zara, baita bertatik etekin ekonomikoa atzeratzeko ere. Betiere, sortutakoa lizentzia berarekin argitaratuz gero; hau da, CC-BY-SA.
Lizentzia honek Approved for Free Cultural Use etiketa darama
Lizentzia ez da aplikatuko, argitaratuko edukia (testu, irudi, argazki...) hirugarrengoetatik datorrenean; dela bere izenarekin sinatutako norbanakoa denean, dela DSS2016EU ez den beste elkarte edo enpresa denean. Eduki hauen gaineko eskubideak titularren esku geratzen da oso osorik, eta beraz, ez dira erreproduzitu, banatu, moldatu eta komunikatu ahal izango titularraren baimen espresurik gabe.

LICENCIA DSS2016EU
CC-BY-SA Creative Commons Atribución-CompartirIgual
Puedes copiar, difundir y remezclar nuestro contenido, incluso si vas a obtener un beneficio económico de él, siempre que tú también utilices este mismo tipo de licencia, es decir, CC-BY-SA. Por supuesto, siempre debes citar y enlazar la fuente y el autor del contenido que utilices.
Esta licencia lleva la etiqueta Approved for Free Cultural Use.
No se aplica a los contenidos (textos, imágenes, fotografías...) publicados por DSS2016EU procedentes de terceros que vayan firmados o sean atribuibles a cualquier otra empresa/asociación diferente de DSS2016EU. Todos los derechos sobre estos contenidos quedan estrictamente reservados a su titular y, por tanto, no podrán ser reproducidos, distribuidos, transformados o comunicados públicamente sin el consentimiento expreso de su titular.

DSS2016EU-K EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARI HONETAKO KOLABORATZAILEEK LIBREKI ADIERAZITAKO IRITZIEN ERANTZUKIZUNIK.
DSS2016EU NO SE HACE RESPONSABLE DE LAS OPINIONES VERTIDAS LIBREMENTE POR SUS COLABORADORES EN ESTA PUBLICACIÓN

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
GOBAIN GIPUZKOA
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO DE EDUCACIÓN, CULTURA Y DEPORTE SECRETARÍA DE ESTADO DE CULTURA
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA

Antzezlaneko une bat. *Instantánea de la obra de teatro.* MARCOSGPUNTO

'Lepantoko besamotz' berriak

Los nuevos 'mancos de Lepanto'

TRATOS ANTZERKIA TEATRO **Emanaldia** Representación Tabakalera
Urriak 6-9 de octubre 21:00 9, 15, 18 euro Centro Dramático Nacional
Sarrerak: Entradas: http://dss2016.eu/eu/sarrerak

1575ean, bere anaia Rodrigorekin batera Penintsulara bueltan zetorrela, Miguel de Cervantes atxilotu eta Aljerrera eraman zuten gatibu. Han egon zen 1580ra arte. Aske geratu bezain pronto *Trato de Argel* idatzi zuen, gatibuen komedia izenekoan sartzen den lana. Genero horretan, kristauek musulmanen eskuetan pasatako gatibualdiak dira ohiko argumentua. 400 urte geroago, *Tratos* antzezlana eskainiko dute Donostian, Cervantesen lanaren gaurkotzea, DSS2016EUren eta Zentro Dramatiko Nazionalaren arteko elkarlanaren fruitua.

CERVANTES MOLDATZEN

Aurelio, jatorriz Kamerungoa, Filologia Hispanikoan lizentziaduna da. Bere bikotekidea, aldiz, Silvia da, Ekuatore Gineakoa. Cervantesekiko sentitzen duten maitasunaren ondorioz Espainiara emigratzen dute, eta, iritsi ostean, Atzerritarrak Barneratzeko Zentroan amaituko dute. Horixe da Zentro Dramatiko Nazionalaren zuzendari Ernesto Caballerok idatzi eta zuzendu duen *Tratos*-en abiapuntua. Moldaketak bestearekiko errespetua, duintasunaren mugak eta gizarte kultur-anitz baten gutxiengoek bizi dituzten bidegabekeriak jartzen ditu mahai gainean.

En 1575, mientras regresaba a la Península junto a su hermano Rodrigo, Miguel de Cervantes fue apresado y llevado cautivo a Argel, donde permaneció hasta 1580. Inmediatamente después de ser liberado, escribió *Trato de Argel*, obra enmarcada dentro de la comedia de cautivos, género en el que el argumento gira principalmente sobre el cautiverio de cristianos a mano de musulmanes. Más de 400 años después llega a San Sebastián *Tratos*, actualización de la obra cervantina y que es fruto de la colaboración entre DSS2016EU y el Centro Dramático Nacional.

ADAPTANDO A CERVANTES

Aurelio, originario de Camerún, es licenciado en Filología Hispánica. Su pareja, Silvia, es natural de Guinea Ecuatorial. El amor que sienten ambos por Cervantes les hace emigrar a España, donde terminan internados en un Centro de Internamiento de Extranjeros (CIE). Este es el punto de partida de *Tratos*, escrita y dirigida por el director del Centro Dramático Nacional Ernesto Caballero. Una adaptación que pone el foco en diferentes aspectos, tales como el respeto hacia el otro, los límites de la dignidad y las injusticias que viven las minorías en una sociedad multicultural.

Caballerok berak azaldu bezala, moldaketa idazteko orduan aintzat hartu ditu CIEetan dauden pertsonek bizi izandako esperientziak. Horretaz gain, protagonisten zerrenda osatzen duten sei aktoreetatik hiruk jatorri afrikarra dute, eta haien lekukotzak ere sartu ditu antzezlanean zuzendariak. Aurelioren papera egiten duen eta hamar urte zituenetik Espainian bizi den Elton Prince aktorearen esanetan, parte-hartze horrek erraztu egin du pertsonaiarekiko inplikazioa: «Cervantesen testuak alde batera utzita, agertoki gainean ikusten dena erreala da, pertsonaiak gu geu gara.

CIEetako pertsonekin egoteaz gain, aktoreen testigantzak ere jaso ditu zuzendariak

Horrelako antzezlan baten parte hartzeko barruraino sartuta egon behar duzu. Ni beste mundu batera eramaten nau: agertokian negar egiten dudanean benetan egiten dut negar; negar presoengatik, zentroetan daudenengatik, errefuxiatuengatik. Nire malkoek horiek guztiak ordezkatzen dituzte. Aktore batentzako hori itzela da, eta oso zaila, baina nire lanbidearekin gauzak aldatzeko zerbait egin badezaket, ongietorria izan dadila».

MARRA BAT, BI MUNDU

Tratos-en ezaugarrietako bat eszenaratzea da. Ohikoena da aktoreak publikoarekin aurrez aurre egotea, baina, kasu honetan, ikusleak bitan banatuta geratzen dira agertoki lanak egiten dituen pasabide baten ondorioz. «Horrelaxe irudikatu nuen hasieratik», dio Ernesto Caballerok, «marra batek duen balio metaforiko guztiagatik: bi munduren, bi gizataldaren arteko mozketa latza». Horrela izateak, baina, hainbat zailtasun ekarri ditu: «Eszena mugitzeko orduan erronka bat izan da. Aurrez aurre lan egitera gaude ohituta, eta, kasu honetan, bi metro zabal bakarrik dituen pasabide baten bi aldeen artean banatu behar izan dugu ekintza».

ELKARLAN 'EREDUGARRIA'

Antzezlana Miguel de Cervantesen heriotzaren IV. mendeurrenaren barruan kokatzen da, eta irailaren 14an estreinatu zuten Madrilen. Ernesto Caballerorentzat, Donostia 2016rekin izan dute elkarlana eredugarria izan da: «Antzezlanean hitz egiteaz jarduten dugu, eta zentzugabekeria litzateke erakunde bakoitza bere lekuan geratzea, bakarka lan egitea. Egon diren konfiantza, konplizitatea eta erraztasuna azpimarratuko nituzke. Izan ere, artistikoki, sozialki, kulturalki.... ildo beretik goaz».

Donostian egingo dituzten emanaldiak gaztelaniaz izango dira, baina DSS2016EUren ekimenez euskarazko liburuxka bat ere argitaratuko dute Beatriz Zabalondok idatzitako testuekin eta Maddi Zumalaberen ilustrazioekin.

Según explica el propio Caballero, para escribir la adaptación recogió las experiencia vividas por personas internas en los CIEs. El reparto está compuesto por seis actores y actrices, la mitad de ellos de origen africano, y el director también ha integrado en la obra los testimonios aportados por estos. En palabras de Elton Prince, actor que da vida a Aurelio y que lleva desde los diez años afincado en España, este hecho ha facilitado su implicación con el personaje: «Dejando a un lado los textos de Cervantes, lo que se ve en el escenario es real; los personajes somos nosotros. Para poder interpretar una obra así tenemos que estar completamente involucrados. A mí me transporta a otro mundo: cuando lloro en el escenario, lloro de verdad; lloro por los presos, por los internos, los refugiados. Mis lágrimas representan a todos ellos. Para un actor eso es brutal y muy difícil, pero si con mi profesión puedo aportar algo para cambiar las cosas, bienvenido sea».

UNA FRANJA, DOS MUNDOS

Una de las características de *Tratos* es su puesta en escena, pues en vez de plantearla de forma habitual, es decir, con los actores encima del escenario y el público de frente, lo hace de tal modo que las y los espectadores quedan divididos

Además de hablar con las y los internos en los CIES, el director ha recogido los testimonios de los actores

por una pasarela, que es el escenario. «Lo concebí así desde el principio», explica Ernesto Caballero, «por todo el valor metafórico que tiene una franja: ese corte abrupto entre dos mundos, entre dos grupos humanos». Una elección no exenta de dificultades: «A la hora de mover la escena ha supuesto un desafío. Estamos acostumbrados a trabajar frontalmente, y hemos tenido que repartir el juego, la acción, entre ambos lados, en un escenario que apenas tiene dos metros de anchura».

COLABORACIÓN 'EJEMPLAR'

La obra está enmarcada dentro del IV Centenario de la muerte de Miguel de Cervantes, y se estrenó en Madrid el pasado 14 de septiembre. Para Ernesto Caballero, la colaboración con San Sebastián 2016 ha sido ejemplar: «En la obra estamos hablando de dialogar, y sería absurdo que cada institución se quedara en su lugar, haciendo la guerra en solitario. Destacaría la confianza, complicidad y facilidad con la que ha fluido todo, puesto que en lo artístico, social, cultural... estamos en la misma línea».

Las representaciones que tendrán lugar en San Sebastián serán en castellano, pero DSS2016EU también publicará un libreto en euskera con textos de Beatriz Zabalondo e ilustraciones de Maddi Zumalabe.

ANTZEZLANEKO AKTORE ZERRENDA
ELENCO DE LA OBRA

Elton Prince. MARCOSGPUNTO

Astrid Jones. MARCOSGPUNTO

Carmen Gutiérrez. MARCOSGPUNTO


Chema Adeva. MARCOSGPUNTO

Primo José Griñán. MARCOSGPUNTO

Ione Irazabal. MARCOSGPUNTO

Cervantes, un classique très actuel

Dans le cadre du IV centenaire de la mort de Miguel de Cervantes, le Centre Dramatique National et DSS2016EU ont coproduit l'œuvre de théâtrale *Tratos*, adaptation de *Trato de Argel*. L'écrivain espagnol a écrit l'original en 1580, en se basant sur ses cinq années de captivité en Algérie. Ernesto Caballero, directeur du Centre National Dramatique, a été chargé d'écrire et de diriger l'adaptation qui se déroule dans le Centre d'Intégration des Étrangers. À cet effet, il a rencontré les internes de ces centres, et il a également recueilli les témoignages des acteurs d'origine africaine qui font partie de la distribution. *Tratos* pourra être vue à Tabakalera du 6 au 9 octobre.

Cervantes, a contemporary classic

As part of the celebrations for the 4th Centenary of the death of Miguel de Cervantes, the National Drama Center and DSS2016EU have been co-producers of the play *Tratos*, an adaptation of *Trato de Argel*. The Spanish author penned the original text in 1580, inspired in his five years of captivity in Argel. Ernesto Caballero, director of the National Drama Center, has written and directed the adaptation, which takes place in a Center for the Integration of Foreigners. In order to write the play, he has talked with residentes of those centers, and has collected the testimony of the African actors that have been cast. *Tratos* will be performed at Tabakalera from 6 to 9 October.

ELKARRIZKETA
ENTREVISTA

Ernesto Caballero

ANTZERKI IDAZLE ETA ZUZENDARIA AUTOR Y DIRECTOR TEATRAL

«Antzerkiak aldaketa pertsonalak eta sozialak eragiteko balio behar du»

«El teatro tiene que ser útil para cambiarnos tanto en lo personal como en lo social»

Gustura eta emozioz beteta dago Ernesto Caballero (Madril, 1958) *Tratos*-en Madrilgo estreinaldiaren ostean. Idazle eta zuzendari moduan ibilbide luzea du, eta gaur egun Zentro Dramatiko Nazionalaren zuzendaria da. Berak egokitu eta zuzendu du Miguel de Cervantesen *Trato de Argel*-en egokitzapena.

Nola egin zenion aurre *Trato de Argel*-en egokitzapenari?
Oso gustukoak ditut gure errepertorio klasikoaren modu honetako berridazketak. Aurretik ere eginak nituen Calderón de la Barcaren bi lanenak, baina Cervantesena egiteke neukan. Klasiko izaera du hainbat alorri dagokionez gaurkotasunezkoa den begirada erakusten duelako; esaterako, bestearen, atzerritarraren, trataeran. Cervantesen figura gaur egungo ikuskizun batera nola ekarri Pablo Berásteguirekin hitz egin nuenean, *Trato de Argel*-ez oroitu nintzen. Lekukotasun-lan bat da, ez oso ezaguna, hasieretakoa, Cervantesek Aljeriako gatibualdia amaitu bezain laster idatzi zuena. Garai hartarako lan ia dokumentala da: gatibualdiaren baldintzez hitz egiten du, presoen eta zaindarien arteko harremanaz... Bazegoen gaur egunera zer ekarri. Aljerko bainuetan egoten ziren pirata berbereek bahitutakoak; ez ziren ohiko espetxeak, zehaztu gabeko giltzapetze lekuak baizik. Leku horiek berehala lotu nituen Atzerritarrak Barneratzeko Zentroekin [gazteleraz, CIE]. Berauetan dagoen jendea ez dago han delituak egiteagatik, administrazio-arazoengatik baizik. Moldaketa, *Tratos*, idazten hasi nintzen, eta konturatu nintzen aipuak, pertsonaien izenak, jatorrizko espiritua mantendu arren, apurka-apurka aldentzen nenbilela Cervantesen lanetik. Moldaketa idazteko CIEetan barneratuta zeudenekin hitz egin nuen eta paperik gabeko pertsonen bidez ere jaso nuen informazioa. Gero, entseguen lehenengo fasean hasierako testua aktoreekin landu nuen, erdiak jatorri afrikarra dute-eta. Lehenengo entsegu horien ostean berriz ere itzuli nintzen idazketa lanera, testua zehaztuago geratu zen eta eszenaratzea lantzen hasi ginen. Eszenaratzea, gainera, ez genuen italiar eran planteatu: agertokia hasieratik irudikatu nuen gizatalde bat erditik banatzen zuen marra, lerro bat bezala.

Zein izan da 1580ko lan bat gaur egunera ekartzeko izan duzun zailtasunik handiena?
Erronkak ugari izan dira, baina oso gustagarriak egin zaizkit. Lehenengo zailtasuna izan zen lekukotasun-lan bat izateaz gain, garai zehatz bati oso lotutako genero batean kokatzen dela lana, kristauen eta mairuen generoan. Horregatik egokitu behar izan dugu. Beste alde batetik, jatorriz neurtitzetan idatzitako obra bat da, eta neurtitzez osatutako uholde barroko hori guztiz kontrakoa den zerbaitetan laburtzen saiatu naiz: esaldi motzak, oso zehatzak. Garai hartako antzerkigintza, gainera, agerikoagoa da arimaren eta espirituaren mugimenduei dagokienez; ez dago psikologiarik, dena esan egin behar da. Erronka izan da pertsonaien barruko gatazkak jakinarazi eta hizkuntza sintetiko eta zehatzarekin adieraztea; erretorika hori gaur egungo antzerki-hizkuntza bihurtzea. Bestelako erronka batzuk ere egon dira. Jatorrizko aktore-zerrendan, esaterako, 20 pertsonaia baino gehiago daude, horietako asko bigarren mailakoak; episodikoak kanpoan utzi ostean, 6 pertsonaiatan pilatu ditugu denak.

«Elton Prince zerbitzari batena egiteko proba batera joan, eta esan zioten zerbitzaria eskatu zutela, ez beltz bat»

Satisfecho y emocionado. Así se muestra Ernesto Caballero (Madrid, 1958) después del estreno madrileño de *Tratos*. Autor y director teatral de amplia trayectoria, es el actual director del Centro Dramático Nacional, y suya ha sido la labor de escribir y dirigir la adaptación de la obra *Trato de Argel*, de Miguel de Cervantes.

¿Cómo se enfrentó a la adaptación de *Trato de Argel*?
Siento debilidad por estas reescrituras, estas revisitaciones de nuestro repertorio clásico. Ya lo había hecho con dos obras de Calderón de la Barca, y Cervantes lo tenía como una asignatura pendiente. Su condición de clásico es por lo contemporánea que es su mirada sobre diversos aspectos; entre otros, su tratamiento del otro, del extranjero. Cuando hablé con Pablo Berástegui sobre cómo trasladar la figura de Cervantes a un espectáculo contemporáneo, me acordé de *Trato de Argel*. Es una obra testimonial, nada conocida, primeriza, que Cervantes escribió nada más abandonar su cautiverio argelino. Es una obra casi documental para la época: habla de las condiciones del cautiverio, las relaciones entre presos y guardianes... Había material para trasladar a la actualidad. Se daba la circunstancia de que los baños de Argel, donde estaban recluidos los rehenes secuestrados por piratas berberiscos, no eran prisiones al uso, sino lugares indeterminados de reclusión. Identifiqué perfectamente esos lugares en los Centros de Internamiento de Extranjeros (CIE), donde la gente está por problemas administrativos, no por haber cometido algún delito. Empecé a escribir la adaptación, *Tratos*, y vi que poco a poco iba alejándome del original cervantino, aunque conservaba citas, nombres de personajes, el espíritu original... Para escribir la adaptación hablé con internos en los CIEs, recabé la información entre los *sin papeles*. Luego, en una primera fase de ensayos, trabajé el texto inicial con el equipo de actores, puesto que la mitad de ellos son de origen africano. Tras esos primeros ensayos, volví a la escritura, el texto quedó más definido y empezamos a trabajar la puesta en escena, que no está planteada como un teatro *a la italiana*; desde el primer momento concebí el espacio como una franja, que separa un grupo humano en dos mitades.

¿Cual ha sido la mayor dificultad a la hora de trasladar una obra escrita en 1580 a la actualidad?
Los desafíos han sido múltiples, pero han resultado muy gozosos. El primer escollo fue que a parte de ser una obra testimonial, es una obra que pertenece a un género, el de moros y cristianos, que está muy ligado a una época concreta. Es por ello que lo hemos tenido que adecuar. Por otra parte, es una obra que originalmente está escrita en verso, y he procurado condensar todo ese torrente barroco, versal, en un lenguaje que es todo lo contrario: frases cortas, muy concisas. El teatro de esa época, además, es más explícito en cuanto a los movimientos del alma y del espíritu; no existe la psicología, todo se tiene que enunciar. El desafío ha sido trasladar esos conflictos internos de los personajes y manifestarlos con un lenguaje sintético, conciso; reconvertir esa retórica en un lenguaje dramático contemporáneo. También ha habido otros retos. Por ejemplo, el elenco original cuenta con más de 20 personajes, muchos de ellos secundarios, y tras renunciar a figuras episódicas, los hemos concentrado todos en 6 personajes.

«Elton Prince fue a una prueba para hacer de camarero y le dijeron que habían pedido un camarero, no un negro»

MARCOSGPUNTO

Ez al da harrigarria orain 400 urte idatzi zen lan bat gaur egun ere baliagarria izatea?
Oso harrigarria da. Nire ustetan, bai Cervantesen lanari eta *Tratos*-i zentzua ematen dioten bi figura alegoriko daude: aukera eta beharra. Momentu jakin batean guztiok ditugu beharrak; baita horiek gainditzeko aukera ere. Horrek laburbiltzen du Cervantesek planteatzen duen gatazka morala: noraino ematen dugu amore gure zuzentasunean? Non dago duintasunaren muga? Bere gatibualdian adore handia erakutsi zuen Cervantesek, baina makalaldiak dituzten pertsonaiak ere sartzen ditu. Eta ulertu egiten ditu. Egun ere gaurkotasunezko gaiak dira horiek, eta oso interesgarria da planteatzea. Izan ere, uste dut gaizki ulertutako pragmatismoaren ondorioz batzuetan erlaxatu egiten garela. Baina Cervantes bere buruarekiko ironikoa ere bada, eta ez du modu gupidagabean jipoitzen; barkabera da. Umorea moralarekin lotutako gai handiekin uztartzen daki. Horregatik daude indarrean bere hitza eta bere begirada.

Nola eragin dute testuan aktoreek egindako ekarpenek?
CIEetan jasotako lekukotzen osagarriak izan dira. Aktoreek lege barruan dute beraien egoera. Espainian bizi dira eta bertan lan egiten dute, baina oso ezaguna ez den errealitate bat erakutsi didate. Telebistan, antzezlanetan dagoen erreferente falta ikusarazi didate. Ez dugu, esaterako, dentista edo mediku beltzik ikusten. Kultur anitzekoa den gizarte bat izan arren, integrazio osoarekiko burugogorrak izaten jarraitzen dugu oso. Aktoreek beldurra ematen duten pasarteak kontatu dizkidate. Elton Prince, esaterako, zerbitzari batena egiteko proba batera joan zen, eta esan zioten zerbitzari bat eskatu zutela, ez beltz bat. Horrelako gauzak gertatzen dira oraindik ere. CIEetan bidegabekeria objektiboak kontatu zizkidaten, baina aktoreek saltsa oso mehe egin dute, hain agerikoak ez diren esklusio-sintomak erakutsi dizkidate. Nik antzezlanean zehar sartu ditut, eta pertsonaia zuriak partedun egin ditut. Antzerkiak aldaketa pertsonalak eta sozialak eragiteko balio behar du; zentzu horretan, abentura hau prozesu aberasgarria izan da.

Zer gustatuko litzaizuke sentitzea ikusleek antzezlana amaitzean?
Inoiz ere ez dut hain argi izan helburua: ikusleak partedun egin nahi ditut, CIEetan zeudenekin izan nuen lehen topaketak eragin zidan zirrara helarazi nahi diot. Kontatu zidatena nola kontatu zidaten, nolako eskuzabaltasunarekin... Dramarik eta izugarrikeriarik gabe. Uste dugu dokumentalen bidez ezagutzen dugun errealitate bat dela, baina gertutik, pasarte pertsonalen bidez, definitzeko oso zaila den sentipena eragin zidaten; oraindik ere mantentzen dudan sentipena, altxorra dudana. Nabaritzen nuen kontatzen ari zitzaizkidan heinean aldatzen ari nintzela. Publikoa ere aldatuta ateratzea gustatuko litzaidake, ez dezatela ahaztu ikusi eta entzun dutena. Errealitate hori beraien parte izan dadila; ez ditzatela bidegabeak diren errealitateak onartu, eta kontzientziak aldaketa ekar dezala.

¿No resulta sorprendente que una obra escrita hace más de 400 años tenga vigencia actualmente?
Es muy sorprendente. Hay dos figuras alegóricas que para mí dotan de sentido tanto a la obra de Cervantes como a la nuestra, *Tratos*: la ocasión y la necesidad. En un momento dado, todos necesidades, y también tenemos la ocasión de superarlas, vencerlas. Y ahí se resume el conflicto moral que plantea Cervantes: ¿hasta dónde cedemos nuestra integridad? ¿Dónde está el límite de la dignidad? Cervantes mantuvo una gran entereza en su cautiverio, pero también introduce personajes que flaquean. Y los entiende. Son temas que están completamente vigentes, es muy interesante plantearlos hoy en día, porque creo que a veces se baja mucho la guardia en función de un pragmatismo mal entendido. Pero Cervantes también es autoirónico y no fustiga de una manera despiadada, es indulgente. Sabe conciliar el humor con las grandes apuestas morales. Por eso su palabra y su mirada resultan tan vigentes.

¿Cómo han influido en el texto las aportaciones de los actores?
Han sido complementarias a los testimonios recogidos en los CIEs. Los actores tienen su situación regularizada, viven y trabajan en España, pero también me han descubierto una realidad que no es muy conocida. Me han hecho ver la ausencia de referencias que hay en la televisión, en las obras de teatro... Por ejemplo, no vemos dentistas o médicos de raza negra. Aunque seamos una sociedad multicultural, seguimos siendo muy refractarios a una integración plena. Los actores me han contado anécdotas pavorosas. Elton Prince, por ejemplo, fue a una prueba para hacer de camarero, y le dijeron que habían pedido un camarero, no un negro. Esas cosas siguen pasando. Las personas con las que hablé en los CIEs me hicieron ver las arbitrariedades objetivas, pero los actores han hilado muy fino, me han mostrado esos síntomas de exclusión que no son tan evidentes. Yo los he diseminado a lo largo de la obra, y he hecho partícipe de ellos a los personajes blancos. Si algo tiene el teatro es que tiene que ser útil para cambiarnos tanto en lo personal como en lo social, y en ese sentido, esta aventura ha sido un proceso enriquecedor.

¿Qué le gustaría que sintiera el público al terminar la representación?
Nunca he tenido tan claro el objetivo: quiero hacerle partícipe, trasladarle la misma conmoción que me procuró el primer encuentro que tuve con las personas recluidas en los CIEs. Lo que me contaron, cómo me lo contaron, con qué generosidad.... Sin dramas ni truculencias... Es una realidad que uno piensa que conoce a través de los documentales, pero en las distancias cortas, con la anécdota personal, me produjo una emoción muy difícil de definir; una emoción que la he conservado, que para mí es un tesoro. Cuando contaban su relato, me daba cuenta de que me estaban transformando. Me gustaría que el público saliera también un poco cambiado, que no se olvide de lo visto y oído. Que esa realidad forme parte de ellos; que no acepten realidades injustas y que la conciencia propicie el cambio.

ELKARRIZKETAK
CONVERSACIONES

Dantzaren mila aurpegiak

Las mil caras de la danza

'KARTA ZURIAK' 'CARTAS BLANCAS': JONE SAN MARTIN DANTZA DANZA
Ikuskizuna, performancea, instalazioa Espectáculo, performance, instalación
Urrian zehar A lo largo de octubre

Maiatzean *Legitimo/Rezo* izeneko hitzaldi dantzatua eskaini ostean, Jone San Martin dantzari donostiarrak urrian eskainiko ditu bere *Karta zuria* osatuko duten beste lau proposamenak. Ekimen honekin, beraien proposamenen bidez Hiriburutzaren programazioa aberasteko aukera eman nahi izan die hiru artistari DSS2016EUk (beste biak Esther Ferrer eta Anjel Lertxundi dira). San Martinek berak dioen moduan, ezin izan zion gonbidapenari uko egin: «Oso eskuzabala iruditzen zait artistei beraien ikuspegia, lan egiteko modua, ibilbidea partekatzeko aukera ematea. Gonbidapena jaso eta berehala onartu nuen. Beldur handia ematen zidan, eta oraindik ere ematen dit, baina horrelako aukerak ez dira ohikoak eta barkaezina izango zatekeen ezetz esatea.

ZUBIAK LUZATZEN

Dantzariak argi dauka oso bere *Karta zuriaren* helburua: «Nire abiapuntua zubiaren ideia izan da: hona ekartzea kanpoan lantzen dena, eta baita alderantziz ere; komunikazio hori zabaltzea. Urte asko daramatzat atzerrian eta orain han egindakoarekin nago hemen». Gonbidatutako artisten agenden ondorioz proposamen guztiak koordinatzea zaila izan dela dio, baina, era berean, azpimarratzen du egindako esfortzuak eman duela fruitua.

Dantzaren eta koreografiaren alderdi guztiak erakusteko asmoarekin, Jone San Martinen proposamenetan askotariko adierazpen artistikoak daude: instalazioak, performanceak, ikuskizun ohikoagoak.... Horretarako, hainbat artista eta sortzaile gonbidatu ditu; batzuekin aurrez lan egin du, beste batzuekin lanean ari da gaur egun eta badira beste batzuk zeintzuekin betidanik lan egin nahi izan duen. Artisten artean dago, esaterako, William Forsythe koreografo estatubatuar entzutetsua; 23 urtez aritu da San Martin berarekin. Dance On konpainia alemaniarra ere gonbidatu du; donostiarraren gaur egungo konpainia da berau.

Tras ofrecer en mayo la conferencia bailada titulada *Legítimo/Rezo*, la bailarina donostiarra Jone San Martin presentará a lo largo de este mes de octubre las otras cuatro propuestas que componen su *Carta blanca*. Con esta iniciativa, DSS2016EU ha querido que tres artistas (los otros dos son Esther Ferrer y Anjel Lertxundi) enriquezcan la programación de la Capitalidad mediante sus propuestas, una invitación a la que San Martin no se pudo resistir: «Me parece muy generoso invitar a artistas a compartir su visión, su manera de trabajar, su trayectoria. Cuando recibí la propuesta, la acepté enseguida. Aunque me daba, y aún me sigue dando, mucho miedo, sé que este tipo de oportunidades no son habituales, y dejarla pasar hubiera sido imperdonable».

TENDER PUENTES

La bailarina tiene muy claro el objetivo de su *Carta blanca*: «La idea de la cual partí es la del puente: poder traer aquí lo que se trabaja y elabora fuera y viceversa; abrir esa comunicación. Llevo muchos años en el extranjero, y ahora estoy aquí con lo que he hecho allí». Reconoce que, debido a la disponibilidad de los artistas invitados, coordinar todas sus propuestas no ha sido una labor fácil, pero a su vez destaca que el esfuerzo invertido ha dado sus frutos.

Con la intención de mostrar las diferentes vertientes de la danza y la coreografía, las propuestas realizadas por Jone San Martin abarcan diferentes expresiones artísticas: instalaciones, performances, representaciones más tradicionales... Para ello, ha invitado a artistas y creadores con quienes ha trabajado, está trabajando hoy en día o con los que siempre ha querido trabajar. Entre ellos se encuentran William Forsythe, aclamado coreógrafo estadounidense bajo cuyas órdenes Jone San Martin bailó durante 23 años; y la compañía alemana Dance On, de la que actualmente forma parte la bailarina donostiarra.

Jone San Martin. DOROTHEA TUCH

Les mille visages de la danse

Avec l'initiative *Cartes Blanches*, Saint-Sébastien 2016 a invité trois artistes à enrichir la programmation de la Capitale avec leurs propositions. La danseuse de Saint-Sébastien, Jone San Martin est l'une de ses artistes, et après avoir présenté sa première proposition en mai, les quatre restantes seront réalisées en octobre. «L'idée dont je suis partie est celle d'un pont: pouvoir apporter ici ce qui est fait à l'extérieur et réciproquement», explique San Martin, et afin de montrer les différents aspects de la danse, elle pose quatre propositions très différentes. Les 13 et 14 octobre, le duo SAD réalisera la performance *Gold*. Les 15 et 16 octobre, la compagnie Dance On proposera un double programme. Les 21 et 22 octobre, le spectacle *Huts* sera présenté ; et à partir du 26 octobre, deux installations de William Forsythe et Rjoyi Ikeda pourront être visitées à Tabakalera.

The thousand faces of dance

With *Carte blanche*, San Sebastian 2016 has invited three artists to engross the Capital of Culture's programme with their proposals. The San Sebastian native dancer Jone San Martin is one of the guest artists. She presented her first proposal in May, and the other four will be carried out in October. «The starting idea is the bridge: to be able to bring home what I worked on abroad, and the other way round», says San Martin. With the aim in mind to show the different dimensions of dance, she brings about four very different proposals. On October 13 and 14, the duet SAD will do the performance called *Gold*. On October 15 and 16, the company Dance On will put on a twofold show. On October 21 and 22, the show *Huts* will be presented; and from October 26 on, the installations by William Forsythe and Rjoyi Ikeda will be open for visiting at Tabakalera.

JONE SAN MARTINEN 'KARTA ZURIA'

LA 'CARTA BLANCA' DE JONE SAN MARTIN

Performancearen kartela. *Cartel de la performance.* SAD

'GOLD'

Tabakalera Urriak 13, 14 de octubre
Gonbidapenarekin Con invitación

Josh Johnsonek eta Cyril Baldyk osatzen duten SAD bikoteak *Gold* izeneko performancea aurkeztuko du; bertan, ikus-entzunezko sorkuntzak, musika eta dantza uztartzen dituzte. Frankfurteko koktelgile famatu batek ere hartuko du parte, eta koktel bat sortuko du ekitaldirako. Jone San Martinen esanetan, bikotearen ezaugarrietako bat da hainbat plataforma erabilita giro eta egoera bereziak eta interesgarriak sortzen dituela.

El dúo SAD, formado por Josh Johnson y Cyril Baldy, presentará la performance *Gold*, donde se mezclan piezas audiovisuales, música y danza. La iniciativa contará con la presencia de un famoso coctelero proveniente de Frankfurt, que creará un cóctel para el evento. Según Jone San Martin, el dúo se caracteriza por crear ambientes y situaciones muy peculiares e interesantes utilizando diversas plataformas.

Dance On konpainia DOROTHEA TUCH

DANCE ON

Victoria Eugenia Antzokia Teatro Victoria Eugenia Urriak 15, 16 de octubre
10, 18, 24 euro (dss2016.eu/eu/sarrerak)

Babeslea: Patrocinador: Goethe Insitut

40 urtetik gora duten sei kidez dago osatuta Berlingo Dance On konpainia, eta dantzarietako bat da Jone San Martin.

Konpainiak programa bikoitza eskainiko du: *Those Specks of Dust* koreografia, Kat Válastur greziarrak sortu duena; eta *7 Dialogues*. Azken hori sortzeko, konpainiako dantzari bakoitzak bakarka egin du lan artista edo koreografo batekin. Emaitza Matteo Fargionek uztartutako sei solo intimista eta pertsonal dira.

Jone San Martin actualmente es miembro de Dance On, conjunto berlinés compuesto por seis bailarines mayores de 40 años.

La compañía ofrecerá un programa doble: la coreografía *Those Specks of Dust*, concebida por la griega Kat Válastur; y *7 Dialogues*, donde cada miembro de Dance On ha trabajado, de forma individual, con un artista o coreógrafo diferente. El resultado son seis solos intimistas y muy personales, orquestados por Matteo Fargion.

'HUTS'

San Telmo Museoa Urriak 21, 22 de octubre 20:30 7 euro (dss2016.eu/eu/sarrerak) Dantzagunea, Tabakalera

Jone San Martinek berak; audio efektuak diseinatu dituen Illart Alkortak; Mikel R. Nieto soinu artistak; eta zeinu-hizkuntzaren interpretea den Carol Rementeríak beraien esperientzia, talentua eta inspirazioa batu dituzte dantza ikuskizun hau sortzeko. Soinua da beronen ardatza, bere presentzia eta bere falta. Hori islatzeko, San Telmo Museoko elizak eskaintzen duen sonoritate bereziaz baliatuko dira.

La propia Jone San Martin; Illart Alkorta, que ha diseñado los efectos de audio; el artista sonoro Mikel R. Nieto y la intérprete de lengua de signos Carol Rementería han aunado su experiencia, talento e inspiración para crear este espectáculo de danza, cuyo eje central será el sonido, tanto su presencia como su ausencia. Para ello, aprovecharán la peculiar sonoridad que ofrece la iglesia del Museo San Telmo.

William Forsytheren instalazioa. *Instalación de William Forsythe.*

WILLIAM FORSYTHE / RYOJI IKEDA

Tabakalera Urriaren 26tik aurrera Desde el 26 de octubre Doan Gratis

Babeslea: Patrocinador: Goethe Insitut

Datorren urtean Parisen erakutsiko dituzten instalazioetako bi jarriko dituzte Tabakaleran William Forsythek eta Ryoji Ikedak. *Nowhere and everywhere at the same time* da Forsythen instalazioa: gela bat da, mugimenduan dauden penduluekin. Ikedak, bere aldetik, *A* erakutsiko du; bertan, espazioa eta bibrazioak dira protagonistak. Bi instalazioekin gorputzek espazioan duten mugimendua eta horren kontzientzia azpimarratu nahi dute.

William Forsythe y Ryoji Ikeda mostrarán en Tabakalera dos de las instalaciones que el año que viene expondrán en París. *Nowhere and everywhere at the same time*, la instalación de Forsythe, consiste en una habitación con péndulos en movimiento. Ikeda, por su parte, mostrará *A*, donde los protagonistas son el espacio y las vibraciones. Las dos instalaciones pretenden incidir en el movimiento del cuerpo en el espacio y la consciencia de ello.

Ramon Casasek Pío Barojari egindako erretratua. *Retrato de Pío Baroja realizado por Ramón Casas.*

Baroja gure artean
Baroja muy presente

BAROJA BERRIRO VOLVER A BAROJA LITERATURA **Jardunaldiak** Jornadas
Gipuzkoa Urriak 24-29 de octubre Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Saila
Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa

Pío Baroja (Donostia, 1872-Madril, 1956) idazle handia eta, batez ere, haren lanak ekarriko dituzte gogora *Baroja berriro* jardunaldiekin haren heriotzaren 60. urteurrenean. Mahai-inguruak, hitzaldiak, solasaldiak eta emanaldi bat izango dira euskal idazleen eskutik Gipuzkoako hainbat txokotan. Ekimena bukatuko dute urriaren 29an Koldo Mitxelenan egingo den *El árbol de la ciencia* liburuaren irakurketa publikoarekin; ekitaldia doan da eta aurrez ez dago izenik eman beharrik.

Se conmemorará la figura y sobre todo la obra del gran escritor Pío Baroja (San Sebastián, 1872-Madrid, 1956) en el 60 aniversario de su muerte con las jornadas *Volver a Baroja*. El programa incluye debates, conferencias, diálogos y una proyección con escritores y varias personalidades en varios puntos de Gipuzkoa. Las jornadas se cerrarán el día 29 de octubre en el Koldo Mitxelena con una lectura pública del libro *El árbol de la ciencia*; la actividad será gratuita y sin inscripciones.

EKITALDIAK
ACTOS

Gipuzkoako Ateneoa (Donostia)
2016.10.24
MAHAI-INGURUA MESA REDONDA
Loreto Casado, Leonardo Romero, Javier Mina

CBA (Irun)
2016.10.25
SOLASALDIA DIÁLOGO
Arantxa Urretabizkaia, Julia Otxoa

Kultura etxea (Arrasate)
2016.10.25
HITZALDIA CONFERENCIA
Anjel Erro

Tabakalera (Donostia)
2016.10.26
HITZALDIA CONFERENCIA
Bernardo Atxaga

Koldo Mitxelena (Donostia)
2016.10.27
HITZALDIA CONFERENCIA
Lorenzo Silva

Koldo Mitxelena (Donostia)
2016.10.28
SOLASALDIA DIÁLOGO
Enrique Urbizu, Montserrat Domínguez

Koldo Mitxelena (Donostia)
2016.10.29
IRAKURKETA PUBLIKOA
LECTURA PÚBLICA

Orfeoia Madrilen
El Orfeón en Madrid

DONOSTIAKO ORFEOIA ORFEÓN DONOSTIARRA MUSIKA MÚSICA **Kontzertua**
Concierto Musikaren Auditorium Nazionala (Madril) Auditorio Nacional de Música (Madrid) Urriak 14 eta 15 14 y 15 de Octubre Donostiako Orfeoia, Filarmonía Orkestra Orfeón Donostiarra, Orquesta Filarmonía

Donostiako Orfeoiak Madrilera egingo du bisita urrian. Bi kontzertu parte-hartzaile eskainiko ditu eta 400 lagunetik gora elkartuko dira Musikako Auditorium Nazionaleko oholtzan. Gabriel Faurék (Frantzia, 1845) konposatutako Requiema eta Mozarten (Austria, 1756) Requiema eskainiko dituzte Sainz Alfarok zuzendutako Madrilgo Filarmonía Orkestraren doinuei jarraituta.

Orfeoiko kideei beste ahots batzuk egingo diete lagun Mozarten Requiema kantatzerakoan; Madrilgo kantari anonimoek, hain zuzen ere. Orain dela bost urte jarri zuten abian ekimen hori, nazioarteko ospea duen Orfeoiarekin batera kantuan egiteko aukera eskainiz abesbatzen doinuak maite dituztenei. Abeslariak hilabete aurretik aukeratu dituzte hainbat hautaketa proba pasatu ondoren, eta tarte horretan lana gertatzen jardun dute.

Donostiako Orfeoiak ez du aurkezpenik behar Madrilen, beti egin izan diote-eta harrera ezin beroagoa. Oraingoan, DSS2016EUko *Elkarrizketak* proiektuaren eskutik joango da.

El Orfeón Donostiarra visitará Madrid en octubre. Ofrecerá dos conciertos participativos y reunirá a más de 400 personas en el escenario del Auditorium Nacional de Música. Interpretará el Requiem compuesto por Gabriel Fauré (Francia, 1845) y el Requiem de Mozart (Austria, 1756) junto con la Orquesta Filarmonía de Madrid dirigido por el director Sainz Alfaro.

A las voces del Orfeón se sumarán las de otros cantores al interpretar el Requiem de Mozart voces anónimas de Madrid. La iniciativa tiene cinco años y tiene como finalidad ofrecer a las personas que aman la música coral la posibilidad de vivir la experiencia de cantar junto al Orfeón de renombre internacional. Esos cantores pasan unas pruebas y preparan la obra desde un mes antes.

El Orfeón Donostiarra no necesita presentación alguna en Madrid, porque siempre ha tenido una calurosa acogida. En esta ocasión la actividad se enmarca dentro de *Conversaciones* de DSS2016EU.

MADRILGO KONTZERTUAK
CONCIERTOS DE MADRID

Auditorio Nacional de Música
2016.10.14 19:30
DONOSTIAKO ORFEOIA, FILARMONÍA ORKESTRA
ORFEÓN DONOSTIARRA, ORQUESTA FILARMONÍA

Auditorio Nacional de Música
2016.10.15 22:30
DONOSTIAKO ORFEOIA, FILARMONÍA ORKESTRA
ORFEÓN DONOSTIARRA, ORQUESTA FILARMONÍA

Iazko kontzertu parte-hartzailea. *Concierto participativo del año pasado.* DONOSTIAKO ORFEOIA

Antzezlaneko une bat. *Un momento de la representación.* JOSE MARI LÓPEZ/DV

Treblinkara bidean
Camino a Treblinka

AZKEN TRENA TREBLINKARA ÚLTIMO TREN A TREBLINKA GIZA ESKUBIDEAK DERECHOS HUMANOS **Antzezlana** Representación Larratxo kultur etxea (Donostia) Centro cultural Larratxo (San Sebastián) Euskaraz: urriak 2, 16, En castellano: 1,8,9,15 de octubre www.dss2016.eu 12 euro Vaiven producciones, Donostia Kultura, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza Vaiven producciones, Donostia Kultura, Diputación Foral de Gipuzkoa, Gobierno Vasco #2016Elkarrizketak #Conversaciones2016

1942. Varsovia. Umezurztegi bat, 200 haur juduren bizilekua. Janusz Korczak mediku eta pedagogoak haurren errepublika sortu zuen hango buru zela. Haurrekin elkarlanean konstituzio bat eratu zuen lege, araudi eta zigor-kode eta guzti. Umezurztegi horren azken egunean ikus-entzuleak hango ohe-literetan izango dira. Baita jakinarazpen izugarri baten lekuko izan ere: Treblinkako kontzentrazio-esparrura eramango dituen trena hartu behar dute.

Donostiako Larratxo kultur etxea bihurtu da umezurztegi uztailaz geroztik. Eta urriaren 1ean estreinatuko dute antzezlana; astegunetan ikastetxekoentzako saioak izango dira, eta urriko hiru asteburutan, edonorentzat.

KORCZAK-EN HISTORIA
Eskubideak dituzten pertsonak dira haurrak Korczak-entzat, beste ezer baino lehen errespetua merezi duten pertsonak. Hain zuzen, Korczaken planteamenduetan oinarrituta osatu zen Haurren Eskubideen Konbentzioa (Geneva, 1959). *Azken trena Treblinkara* lanak Korczak-en historia gogora ekarri nahi du berriz gertatu ezin denaren oroigarri. Era berean salatu nahi du oraindik asko dagoela egiteko haurren eskubideen alde, eta aldarrikatu, mediku judu-poloniarraren unibertsaltasuna.

1942. Varsovia. Un orfanato con 200 niños judíos. Janusz Korczak, doctor y pedagogo polaco, formó allí una verdadera república infantil. Trabajando mano a mano con las y los niños, creó una constitución con sus leyes y reglamentos, y también un código penal. Las y los espectadores estarán en las literas en el último día en este orfanato y serán testigos de una terrible noticia: deben dirigirse al tren que les conducirá al campo de concentración de Treblinka.

Desde comienzos de julio el centro cultural Larratxo se ha transformado en un orfanato. Y el estreno será el 1 de octubre; los días de labor las sesiones serán para los centros escolares, y los primeros tres fines de semana de octubre, para todos los públicos.

LA HISTORIA DE KORCZAK
Los niños son personas con derechos para Korczak, personas que merecen respeto ante todo. Precisamente sobre la base de los planteamientos de Korczak se elaboró la Convención de los Derechos de los Niños (Ginebra, 1959). *Último tren a Treblinka* es la historia de Korczak, que quiere ser la memoria de lo que no puede volver a ocurrir. Asimismo, quiere denunciar la labor que está por hacer en defensa de los derechos de la infancia, y a la vez, reivindicar la universalidad del médico judío-polaco.

Hiri misteriotsua
Ciudad misteriosa

FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN ASTEA SEMANA DE CINE FANTÁSTICO Y DE TERROR AHOZKOTASUNA / TRANSMISIOA ORALIDAD / TRANSMISIÓN **Zinema/Erakusketa** Cine/Exposición Antzoki Zaharra/Udal Liburutegia Teatro Principal/Biblioteca Municipal Urriaren 29tik azaroaren 4ra Del 29 de octubre al 4 de noviembre Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea, Donostia Kultura, Gugan, Axelcasas, Pintxo Developer eta ArteKlab #2016Elkarrizketak #Conversaciones2016

Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren 27. Astearekin egingo du bat DSS2016EUk urriaren 29tik azaroaren 4ra eta Japoniako XXI. mendeko fantasiazko zikloa izango da protagonistetako bat. Era berean, *Misterioaren Itsasargia* proiektuarekin prozesu parte-hartzaile bidez jasotako Donostiako misteriozko istorioak erakutsiko dituzte Udal Liburutegian argazki-erakusketa bidez.

DSS2016EU se unirá a la 27ª Semana de Cine Fantástico y de Terror del 29 de octubre al 4 de noviembre, donde uno de los protagonistas será el ciclo sobre el Japón fantástico del siglo XXI. Asimismo el proyecto *El Faro del Misterio* ha recogido las historias de misterio de San Sebastián a través de un proceso participativo y las fotos se expondrán en la Biblioteca Municipal.

FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN ASTEA

XXI. MENDEKO FANTASIAZKO JAPONIA
EL JAPÓN DE FANTASÍA DEL SIGLO XXI

Milurteko berrian ekoitzitako hamarnaka film proiektatuko dituzte eta zinemagile garaikide horietako batzuk Zinemaldian bertan izango dira.

La Capitalidad Europea de la Cultura, que se celebra este año en Donostia/San Sebastián ha contemplado, muy adecuadamente, desde su inicio, el reto de abordar y exponer esta cuestión en su propio desarrollo a través de diversas iniciativas con el fin de explicitar el reconocimiento de la libertad de conciencia y de religión en conexión con esa clave de convivencia ciudadana a partir de la propia pluralidad social. Precisamente, uno de los principales ejes de esa convivencia se ubica en la protección y promoción de los derechos humanos.

En efecto, la gestión de la diversidad, en este caso la religiosa, ha de pasar por el tamiz de los derechos humanos, un marco de referencia fundamental cuando se trata de abordar cuestiones relacionadas con la convivencia y la justicia social. La búsqueda de espacios y la creación de oportunidades para favorecer el conocimiento de las diferentes confesiones presentes en nuestro entorno más cercano sin duda contribuyen en esa dirección (la de la promoción de los derechos humanos), y también contribuyen positivamente en la gestión pública de la diversidad religiosa.

El proyecto *Baitara baita* ha desplegado una serie de iniciativas en esa línea. La construcción de un espacio multi confesional (Möbius) y la creación de un espacio para el diálogo y el intercambio entre las diversas sensibilidades espirituales y confesionales presentes en Donostia / San Sebastián son dos de las propuestas impulsadas durante este año. No es trabajo de un año, lo ideal es que pueda tener continuidad para reforzar la convivencia ciudadana a partir de estas claves.

Uno de los principales ejes se ubica en la protección y promoción de los derechos humanos

Confiemos en que estas iniciativas dejen un poso que trascienda el 2016 y que la luz del Faro de la paz, uno de los tres faros de la Capitalidad, ilumine un camino de convivencia.

Gasteizko Samaniego institutuko ikasleen ekitaldia. *Actuación de los alumnos del instituto Samaniego de Gasteiz.* IRANTZU LEKUE (WWW.IRALEKUE.COM)

Elkarrekin dantzatu, elkarrekin bizi

Bailemos juntos, vivamos juntos

DANCE2GETHER DANTZA BAILE **Emanaldia** Representación
Alderdi Eder Urriak 16 de octubre 17:00 De Loopers, Dantzagunea
#Dance2gether dance2gether.dss2016.eu

Babeslea: Patrocinador: Fundación Bancaria "la Caixa"

Les jeunes dansant ensemble

Le 16 octobre 200 jeunes de six centres scolaires danseront devant le public sur la terrasse d'Alderdi Eder. Ils présenteront ainsi le travail réalisé avec le groupe allemand De Loopers au sein du projet *Dance2gether* de DSS2016EU. Il s'agit d'adolescents de différents âges, nationalités et environnements culturels et avec différentes capacités physiques. Des adolescents qui ont fait une place à la danse pendant cinq jours et, guidés par les danseurs professionnels, ils ont partagé leurs expériences, leurs doutes et leurs faiblesses durant ces journées. Ces jeunes seront accompagnés de plusieurs chorales, entre autres, les enfants de Gautena (Association de Guipuscoa sur l'autisme) qui ont collaboré au projet *Gure erara*.

Teenagers dancing together

On October 16, more than 200 teens from six schools will perform a dance at the Alderdi Eder terrace. That will be their way to display what they have worked on with the German company DeLoopers, within the framework of the DSS2016EU project *Dance2gether*. Their ages, nationalities, cultural backgrounds and physical abilities are all diverse. They have enjoyed dance and shared experiences, joys, doubts and weaknesses all through five days and with the guidance of professional dancers. The youngsters will be properly backed by several choirs; among others, the boys and girls of Gautena (Gipuzkoa's Autism Association), who have worked with the project *Gure erara*.

"Elkarrekin dantzan egiteko gai bagara, elkarrekin bizi gaitezke", dio Wilfried van Poppel koreografo alemaniarrak, eta dantzan edonork egin dezakeela gaineratu du. Hain zuzen, van Poppelek eta Amaya Lubeigt donostiarrak osatutako De Loopers taldeak jarri zuen abian *Dance2gether* egitasmoa orain dela bi urte. DBHko euskal ikasleekin egin dute lan tarte horretan, Gipuzkoako eta Arabako hamar ikastetxetako ia 900 ikaslerekin. Rolak eratzen eta errotzen hasten diren adinean rol horiek apurtzea izan du helburu De Loopers bikoteak, askatasuna eta errespetua sustatuz dantzaren bitartez.

Bost egunez dantzari egin diote lekua ikastetxeotan; dantzari profesionalek gidatuta, norberaren bizipenak, poztasunak, zalantzak eta ahulguneak elkarbanatu dituzte gaztetxoek. Eta koreografia bat sortu dute, bost minutu inguruko lana. Hala, sormen prozesu bat biziarazi dute neska-mutil horiek dantza aitzakia hartuta.

DANTZARIAK ETA ABESBATZAK

Proiektua bukaerara iritsi da eta landutakoa erakusteko garaia da orain. Herritarren aurrean egingo dute dantzan ikasleek urriaren 16an, 17:00etan (euria eginez gero atzeratu egingo da). Elkarrekin jardungo dute Donostiako hiru ikastetxetakoek eta Urnietako, Zarauzko eta Gasteizko beste banak; 200 gaztetxo baino gehiago Alderdi Ederreko oholtza gainean. Elkartuko dira hainbat adinetakoak, askotariko jatorritakoak, gaitasun fisiko ezberdinak dituztenak eta hainbat kultura ingurutakoak.

Dantzariek, gainera, abesbatzak izango dituzte lagun, besteak beste, DSS2016EUko *Gure erara* proiektuan jardun duten Gautena elkarteko (Gipuzkoako Autismo Elkartea) neska-mutilak. Integrazioa eta normalizazioa helburu duen proiektua izanik ekitaldi horretarako propio moldatutako *A nuestra manera* (Frank Sinatraren *My way*) abestiarekin girotuko dute dantzaldia.

«Si podemos bailar juntos, podemos vivir juntos», dice el coreógrafo alemán Wilfried van Poppel y ha añadido que bailar lo puede hacer cualquiera. El grupo De Loopers, formado por van Poppel y la donostiarra Amaya Lubeigt, puso en marcha el proyecto *Dance2gether* hace dos años. En ese período de tiempo han trabajado con alumnos de ESO, con casi 900 adolescentes de diez centros escolares de Gipuzkoa y Álava. El dúo De Loopers ha querido romper con los roles, precisamente en la edad donde se empiezan a formar y arraigar, fomentando la libertad y el respeto a través del baile.

En esos centros escolares le han hecho un hueco a la danza durante cinco días; guiado por las y los bailarines profesionales, el alumnado ha compartido experiencias, alegrías, dudas y debilidades. Y han creado una coreografía, un trabajo que dura en torno a cinco minutos. Así, con la danza como pretexto, han podido vivir un proceso de creación.

BAILARINES Y COROS

El proyecto ha llegado a su fin y es tiempo de mostrar lo trabajado. El 16 de octubre, a las 17:00 de la tarde (si llueve se retrasará), bailarán ante el público. Se reunirán alumnos de tres centros escolares de San Sebastián, así como de centros de Urnieta, Zarautz y Vitoria; en total más de 200 adolescentes en la terraza de Alderdi Eder. Habrá jóvenes de varias edades, de diferentes nacionalidades y entornos culturales y con distintas capacidades físicas.

A los bailarines, además, les acompañarán varios coros, entre otros, las y los chicos de Gautena (Asociación Gipuzkoana de autismo) que han colaborado en el proyecto *Gure erara* de DSS2016EU. Siendo un proyecto que tiene como objetivo la integración y la normalización, cantarán la canción *A nuestra manera* (*My way*, de Frank Sinatra) adaptada propiamente para dicho evento.

Bizilur elkarteak deitutako lehiaketako argazki saridun bat: Play. *Foto premiada en el concurso convocado por la asociación Bizilur:* Play. IGOTZ ZIARRETA

Azkeneko 'olatuak' hartzeko deialdia

Cogiendo las últimas 'olas' del año

ENERGIA OLATUAK OLAS DE ENERGÍA PARTAIDETZA / KULTUR EKIMENA
PARTICIPACIÓN / INICIATIVA CULTURAL **Deialdia** Convocatoria Urrian zehar En octubre
#EnergiaOlatuak #OlasDeEnergia energiaolatuak.dss2016.eu olasdeenergia.dss2016.eu

NOLA AURKEZTU ZURE PROIEKTUA
CÓMO PRESENTAR TU PROYECTO

Diru-laguntza jasotzeko interesa duten herritarrek edo erakundeek DSS2016EUren webgunean aurkituko duten eskabidea bete eta *eo@dss2016eu* helbidera bidali behar dute, edo ohiko postaz, honako helbidera: Energia-olatuak; Easo kalea 43, 2. solairua; 20006 Donostia.

Las personas o asociaciones interesadas en obtener la ayuda económica deben rellenar la solicitud que encontrarán en la web de DSS2016EU y enviarla a la dirección *eo@dss2016.eu* o por correo convencional a: Olas de energía; Calle Easo 43, 2º piso; 20006 San Sebastián.

Energia-olatuak **programari dagozkion azkeneko laguntzak eskatzeko epea zabalik egongo da urriaren 31ra arte, eta, beraz, lehenbailehen aurkeztu beharko litzateke eskabidea, laguntzen gaineko erabakia azaroaren 22an hartuko delako. Diruz lagunduko diren proiektuak aurten burutu behar dira.**

INPAKTU HANDIAGOA

Bultzada ekonomiko hori alde handia da ekimen askorentzako. Hori da Bizilur elkartearen *Sutondotik Plazara* proiektuaren kasua, zeinak 20.160 euro jaso dituen. Proiektuaren helburua da gogoeta egitea politika publikoek elikadura osasuntsua eta unibertsala susta dezaketen moduen inguruan. Bultzatzaileek lehiaketa bat egin zuten, eta irabazleak Errumanian urri amaieran egingo den Elikadura Burujabetzaren Europako Nyéléni Foroan izango dira. Bestalde, Donostian, azaroan, nazioarteko topaketa bat ere egongo da, interesa duten guztiontzako zabalik. Bizilurreko kide Miren Saizen hitzetan, «DSS2016EUren diru-laguntzak ahalbidetu du proiektuak inpaktu handiagoa izatea, topaketetara Europa osoko jendea etorriko delako eta hemengo pertsonek Europako foroan ikasitakoa zabaltzen lagunduko dutelako».

Aranzadik, bestalde, 2.016 euro jaso ditu euskal portuetako bolalekuen tradizioa dokumentatzeko. Ikerketa bat eta dokumental bat egiten ari dira. Aranzadiko Euken Alonsoren hitzetan, «laguntza hori proiektuarekin aurrera egiteko balidazioa izan da».

El plazo para solicitar las últimas ayudas de *Olas de energía* está abierto, y las y los interesados deben presentar su solicitud cuanto antes, ya que estas ayudas se fallarán el 22 de noviembre. Los proyectos que reciban la ayuda deben concluir este mismo año.

UN MAYOR IMPACTO

Este espaldarazo financiero marca la diferencia para muchas iniciativas. Es el caso del proyecto *Sutondotik Plazara*, de la asociación Bizilur, agraciado con 20.160 euros. El objetivo de esta iniciativa es reflexionar sobre cómo las políticas públicas pueden y deben fomentar la alimentación saludable y universal. Dentro de ese proyecto, convocaron un concurso y las y los ganadores formarán parte de la delegación vasca en el Foro Nyéléni Europeo para la Soberanía Alimentaria, que se celebrará a finales de octubre en Rumanía. Por otro lado, en San Sebastián, en noviembre, habrá un encuentro internacional. En palabras de Miren Saiz, de Bizilur, «la ayuda de DSS2016EU ha hecho posible que el proyecto tenga un impacto mayor, porque vendrá gente de toda Europa a los encuentros, y personas de aquí ayudarán a transmitir lo aprendido en el foro europeo».

Aranzadi ha recibido 2.016 euros para documentar la tradición de los bolalekus de los puertos vascos. Están realizando una investigación y un documental. En palabras de Euken Alonso, de Aranzadi, «la ayuda nos ha supuesto una validación para seguir adelante con el proyecto».

BMW Lurauto Donostia 2016rekin
BMW Lurauto con San Sebastián 2016
BMW Lurauto: GI 636 Km 5,70 · 20180 Oiartzun (Guipúzcoa) - Ramón María Lili nº1, Donostia-San Sebastián

Lurauto

BAKEA
PAZ

'Gernika' eta Sert *Bake-itunean*
El 'Guernica' y Sert en *Tratado de paz*

BAKE-ITUNA TRATADO DE PAZ BAKEA / JUSTIZIA / ESKUBIDEAK / ARTEAK PAZ / JUSTICIA / DERECHOS / ARTES **Erakusketa, interbentzioak** Exposición, intervenciones Bilboko Arte Ederren Museoa, Salamancako Unibertsitatea, Zegamako Otzaurteko Andra Mari ermita, Azkoitiako Santa Maria la Real parrokia Museo de Bellas Artes de Bilbao, Universidad de Salamanca, Ermita de Andra Mari de Otzaurte de Zegama, Parroquia de Santa María la Real de Azkoitia Urrian En octubre #Bakeltuna #TratadoDePaz bakeituna.dss2016.eu bakeituna.dss2016.eutratado-de-paz

Babeslea: Patrocinador: Telefónica

Urrian, hainbat proposamenekin dator *Bake-ituna* proiektua. Irailaren 30a ezkero, zabalik dago, Bilboko Arte Ederren Museoan, *Bake-ituna* proiektuaren barruan antolatu diren zazpi ikerketa-kasuetatik seigarrenari dagokion erakusketa: *1937. Gernikari buruz. Gerra eta civitas-a.* Valentin Roma da komisarioa. Parisko Nazioarteko Erakusketaren ondoren (1937), *Gernika* artelana Europa iparraldean, Ingalaterran eta Ameriketako Estatu Batuetan izan zen, Espainiako errefuxiatuen aldeko diru-ekarpenak erakartzeko. New York-eko MoMAk ikono bakezale gisa ezagutarazi zuen, hain justu, gerraren basakeriaren gaineko narrazioa denean. *Gernika*-ren puzte sinbolikoa, alegoriaren uztea eta mundu osoko bake-eragile bihurtzeko prozesua gerra modernoaren eboluzioarekin bat datoz: bizimodu eta politiken arteko gerra.

1937. Gernikari buruz. Gerra eta civitas-a erakusketak 40 piezatik gora batzen ditu; Picasso, Pollock, Kokoschka, Miró, Rubens eta beste batzuen margolanak, garaiko txanponak, Oteizaren eskultura bat, argazkiak eta liburuak, besteak beste. Artelanak hainbat lekutatik ekarri dira, tartean Reina Sofía museotik.

Horrez gain, *1936. José María Sert eta Nazioen Liga* izeneko ikerketa monografikoaren erakusketa ere ikusgai izango da, Patricia Molins komisarioaren ardurapean. Salamancako Unibertsitatean egongo da. Genevan, Nazio Batuen Erakundearen Europako egoitza nagusiaren areto bat apaintzeaz arduratu zen Sert. Inaugurazioa 1936ko urrian izan zen. Ikerketa horretan, lan hori erakutsi eta bere testuinguruan kokatzen da; Ginebrako instalazioaren zirriborro, dokumentu eta argazkiak daude, Sert-ek San Telmo Museoarentzat gipuzkoarrei buruz egin zituen hainbat lanekin aurrez aurre.

ZEGAMAN ETA AZKOITIAN

Bake-ituna proiektuaren barruan baita ere, *Aldiriak* izeneko produkzio garaikide multzoaren barne, Asier Mendizabalen *Konposizioa eta moldaketak* dago ikusgai urri osoan Zegamako Otzaurteko Andra Mari ermitan. Aizpea Mendik koordinatutako ekoizpen horretan, Zegaman egon izandako bi eskultura-piezaren arteko hari narratiboa esploratzen da.

Bestetik, zabalik jarraitzen du, urriaren 16ra arte, Azkoitiko Santa Maria la Real parrokian Mitra Farahani artista iraniarraren *Le recyclage moderne des enfants sacrés* izeneko interbentzioak, Marion Cruzak koordinatuta.



Picasso, Guernica*-n lanean. Picasso, trabajando en el* Guernica. DORA MAAR

Estela para un pueblo pacífico que era Gernika *(Jorge Oteiza).* MUSEO UNIVERSIDAD DE NAVARRA

ORAINDIK IKUSGAI
AÚN VISITABLES

1937. Gernikari buruz
1937. Sobre Gernika
Bilboko Arte Ederren Museoa
Urtarrilaren 9ra arte
Hasta el 9 de enero

Le recyclage moderne des enfants sacrés. Mitra Farahani
Santa María la Real parrokia (Azkoitia)
Urriaren 16ra arte
Hasta el 16 de octubre

Konposizioa eta moldaketak. Asier Mendizabal
Otzaurteko Andra Mari Ermita (Zegama)
Urriaren 31 arte
Hasta el 31 de octubre

En octubre, el proyecto *Tratado de Paz* llega con varias propuestas. Desde el 30 de septiembre, permanece abierta la exposición sobre el sexto de los siete casos de estudio que abarca el proyecto: *1937. Sobre Gernika. Guerra y civitas,* bajo el comisariado de Valentín Roma. Tras la Exposición Internacional de París (1937), el *Guernica* inició un peregrinaje que le llevaría por el norte de Europa, Inglaterra y Estados Unidos como reclamo recaudatorio del Comité de Ayuda a los Refugiados Españoles. La obra de Picasso fue canonizada por el MoMA de Nueva York como icono pacifista cuando precisamente narra la barbarie bélica. El proceso de inflación simbólica del *Guernica*, su abandono de la alegoría y su metamorfosis en «agente» de la paz mundial coinciden con la evolución de la guerra moderna, ya no apocalíptica ni bíblica sino civil; una guerra entre formas de vida y entre políticas.

La muestra exhibe más de 40 piezas; pinturas de Picasso, Pollock, Kokoschka, Miró, Rubens y otros autores; pesetas de la época; una escultura de Oteiza; fotografías y libros, entre otros. Las obras proceden de varios museos y colecciones, entre los cuales está el Reina Sofía.

Además, durante el otoño se puede visitar, en la Universidad de Salamanca, la exposición sobre el trabajo monográfico *1936. José María Sert y la Sociedad de las Naciones*, comisariada por Patricia Molins. Sert fue el encargado de embellecer una de las salas de la sede europea de Naciones Unidas, en Ginebra. Se inauguró en octubre de 1936. En la exposición se muestra y se contextualiza aquella obra; así, hay bocetos, documentos y fotografías sobre la instalación de Ginebra, enfrentados a obras que Sert hizo sobre el pueblo guipuzcoano para el Museo San Telmo.

EN ZEGAMA Y AZKOITIA

En la sección *Afueras*, se podrá visitar, durante todo octubre, la colaboración de Asier Mendizabal Konposizioa eta moldaketak, en la Ermita Andra Mari de Otzaurte, de Zegama. La exposición explora y representa el hilo narrativo entre dos piezas escultóricas que coexistieron en Zegama.

Por otro lado, también dentro de *Afueras,* continúa abierta, hasta el 16 de octubre, la intervención de la artista iraní Mitra Farahani, titulada *Le recyclage moderne des enfants sacrés*. Se encuentra en la parroquia Santa María la Real, de Azkoitia.

Doako lau ikastaro kultur kudeaketan
Cuatro cursos gratuitos en gestión cultural

KULTUR KUDEAKETA GESTIÓN CULTURAL IKASTAROAK / FORMAZIOA / TREBAKUNTZA / AHALDUNTZEA CURSILLOS / FORMACIÓN / CAPACITACIÓN / EMPODERAMIENTO
Casares K.E., Ernest Lluch K.E., Carlos Santamaria Zentroa (UPV/EHU), 2016 Gunea C.C. Casares, C.C. Ernest Lluch, Centro Carlos Santamaría (UPV/EHU), Espacio 2016
Urrian eta azaroan Octubre y noviembre Asmoz Fundazioa dss2016.eu/eu/parte-hartu-donostia-2016en/kultura-prestakuntza

Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburuak formazio presentzial ikastaroen bigarren multzo bat jarriko du abian urri eta azaroan. Honako gaiei buruzkoak izango dira ikastaro berriak: kultur komunikazioa, jabetza intelektuala, kultur proiektuen ekoizpena eta kultur komunikazio aurreratua. Guztira, doako lau ikastaro izango dira, herritar guztiei zuzendutakoak (edukiera bete arte).

TREBATZE-PROGRAMA ZABALA

Ikastaro sorta hori Donostia 2016k duela hilabete batzuk kultur kudeaketaren arloan trebatzeko abian jarri zuen programa zabal baten parte da. Programa honen helburua da DSS2016EUren eragin-esparruko gizarteko kideak (kolektibo sozialak, eragileak eta herritarrak) ahalduntzea eta trebatzea.

Trebatze-programak zenbait lan-lerro ditu: interesa duen orori zuzendutako ikastaro presentzial irekiak, gizarteko kolektibo eta eragile zehatzei zuzendutako formakuntza eta kultur kudeaketaren inguruko *on-line* ikastaroak egin ahal izateko laguntza ekonomikoak.

Interesatutakoek ikastaro bakoitzeko inskripzio bana egin beharko dute. Horretarako, *dss2016.eu/eu/parte-hartu-donostia-2016en/kultura-prestakuntza* webgunean dagoen formularioa bete eta *formakuntza@dss2016.eu* helbidera bidali beharko da. Izen-emateak ikastaro bakoitza hasi baino bi aste lehenago irekiko dira, eta astebete lehenago itxiko.

DIRU-LAGUNTZAK

Bestalde, Asmoz Fundazioak eskaintzen dituen bi *on-line* modulutan parte hartzen dutenentzako diru-laguntza eskaera epea zabalik dago. Matrikulaziorean %30eko 12 diru-laguntza daude honako ikastarook egiteko: Kultur ekintzailetza eta Kultur komunikazioa 2.0 (Aurreratua). Parte hartzeko, *dss2016.eu/eu/diru-laguntzak/contra/151* helbidean dagoen inprimakia bete eta *formakuntza@dss2016.eu* helbidera bidali behar da. Hurrenez hurren, urriaren 2a eta 9a dira mugaegunak.

San Sebastián 2016, Capital Europea de la Cultura ofrecerá los meses de octubre y noviembre una segunda tanda de cursos de formación presencial en los ámbitos de la comunicación cultural, la propiedad intelectual, la producción de proyectos culturales y la comunicación cultural avanzada. Se trata de un total de cuatro cursos gratuitos (hasta completar aforo) dirigidos a toda la ciudadanía.

PROGRAMA DE CAPACITACIÓN

Estos cursos forman parte de un amplio programa de capacitación en el ámbito de la gestión cultural que San Sebastián 2016 puso en marcha hace meses, con el objetivo de empoderar y capacitar el tejido social (colectivos sociales, agentes y ciudadanía) del área de influencia de DSS2016EU.

Dicho programa de capacitación cuenta con varias líneas de trabajo: cursos presenciales abiertos dirigidos a cualquier persona interesada, formación dirigida a colectivos o agentes específicos de la sociedad y la ayuda económica para la realización de cursos *on-line* en torno a la gestión cultural. Las inscripciones deben realizarse rellenando el formulario descargable de la web *dss2016.eu/es/participa/kultura-prestakuntza* y enviándolo a la dirección *formakuntza@dss2016.eu*. El plazo de inscripción se abre dos semanas antes de cada curso y se cierra una semana antes.

AYUDAS ECONÓMICAS

Por otro lado, está abierto el plazo para pedir ayudas económicas para cursar los dos módulos impartidos por Asmoz Fundazioa. Se concederán 12 ayudas económicas, que suponen el 30% del coste de la matrícula, para realizar los módulos Emprendizaje cultural y Comunicación cultural 2.0 (Avanzado). Para solicitar la ayuda, hay que descargar y rellenar el impreso de *dss2016.eu/eu/diru-laguntzak/contra/151* y enviarlo a *formakuntza@dss2016.eu*. El plazo finaliza el 2 y el 9 de octubre, respectivamente.

Uztailean egin zen doako ikastaro bat. Curso gratuito realizado en julio. GARI GARAIALDE/BOSTOK PHOTO

LAU IKASTAROAK LOS CUATRO CURSOS

KULTUR KOMUNIKAZIOA
Urriak 6 18:00-20:00
Casares K.E.

COMUNICACIÓN CULTURAL
6 de octubre 18:00-20:00
C.C. Casares

JABETZA INTELEKTUALA II
Urriak 20 17:00-20:00
2016 Gunea

PROPIEDAD INTELECTUAL II
20 de octubre 17:00-20:00
Espacio 2016

KULTUR PROIEKTUEN EKOIZPENA
Azaroak 3 18:00-20:00
Ernest Lluch K.E.

PRODUC. DE PROYECTOS CULTURALES
3 de noviembre 18:00-20:00
C.C. Ernest Lluch

KULTUR KOMUNIKAZIO AURRERATUA
Azaroak 24 18:00-20:00
Carlos Santamaria Zentroa

COMUNIC. CULTURAL AVANZADA
24 de noviembre 18:00-20:00
Centro Carlos Santamaría

Divinus catering
www.divinuscatering.es
943 335 368

BAKEA
PAZ

ENBAXADAK
EMBAJADAS

Mugak bizitoki
Convivir con fronteras

EUROPA TRANSIT IBILBIDEA/EMISIOA RECORRIDO/EMISIÓN **Filma** Película
Urriak 20, jatorrizko bertsioan euskarazko azpitituluekin (ETB1, 23:30) 20 de octubre, versión original con subtítulos en euskera (ETB1, 23:30) / Urriak 27, jatorrizko bertsioan gaztelaniazko azpitituluekin (ETB2, 23:30) 27 de octubre, versión original con subtítulos en castellano (ETB2, 23:30) #EuropaTransit europatransit.dss2016.eu
Euskara Castellano

Mugaminak *filmaren fotograma*. *Fotograma de la película* Mugaminak.

Gatazken lekuko diren Europako hamar hiritan izango da *Europa Transit* enbaxada ibiltaria hausnarketa bultzatzeko helburuarekin, eta Amets Arzallus bertsolariak Ziprera egindako bidaia jaso dute *Mugaminak* dokumentalean (Xuban Intxausti, 2016). Europan zutik dagoen azken harresiak bi komunitatetan zatituta du uhartea 1974tik. Mugaren alde bietan duela 50 urte baino gutxiago bizitako gatazkaren ondorioak ezagutu ditu eta inprobisatzaile zipretarren lekukotasunak jaso, besteak beste. Arzallusen begiradaren eta bertsoen bitartez harilkatutako dokumentala da *Mugaminak*.

Donostia Zinemaldian estreinatu da filma, eta ETBk emango du urrian.

La embajada itinerante *Europa Transit* ha viajado a diez ciudades europeas que han sido o son escenarios de conflictos para reflexionar sobre ello; y el documental *Mugaminak* (Xuban Intxausti, 2016) ha recogido el viaje realizado por el bertsolari Amets Arzallus a Chipre. Desde 1974, la isla está dividida por el último muro que queda en pie en Europa y allí ha conocido los vestigios del conflicto vivido hace menos de 50 años; a su vez ha recogido los testimonios de los poetas e improvisadores chipriotas. *Mugaminak* es un documental narrado a través de la mirada y los bertsos de Arzallus.

El documental se ha estrenado en el Festival de Cine de San Sebastián y ETB lo emitirá en octubre.

ARRAKASTA NAZIOARTEAN
ÉXITO INTERNACIONAL

Europa Transit-en baitan sortutako dokumentalak arrakastaz arrakasta dabiltza nazioartean. Belfasten filmatutako _In Dialogue_ emango dute Dublingo (Irlanda) Fingal Film Festivaleko sail ofizialean. Eta Dresdenen filmatutako _Dresden babesleku_ San Frantziskoko (AEB) UNAFF jaialdian.

Egindako lehen bost dokumentalak ikusgai daude EITBren webgunean, _Nahieran_ atalean.

Los documentales realizados dentro de _Europa Transit_ están cosechando éxito internacional. _In Dialogue_, rodado en Belfast, se emitirá en el Fingal Film Festival de Dublin (Irlanda). Y el film _Dresden babesleku_, rodado en Dresde, viajará al festival UNAFF de San Francisco (EEUU).

Los cinco primeros documentales están en la página web de EITB, en la sección _Nahieran_.

ATSEGIN HANDIZ
CON MUCHO GUSTO

Andrea Arrizabalaga
HAZITEGIAK KAIKO TALDEKIDEA MIEMBRO DEL MUELLE HAZITEGIAK

Hazitegiak: artistak, ekipamenduak eta herritarrak batzen dituen bitartekoa
Hazitegiak: el medio que une artistas, equipamientos y ciudadanía

Bitartekaritza hitza gero eta ohikoago bihurtzen ari da museo bat, antzoki bat edo praktika artistikoekin lotura duen edozein leku bisitatzen dugunean. Baina ez dauka definizio bakarra. Izan ere, burura datorkigun lehenengo irudia da aurka dauden bi alde, zeinetan zubi bat eraikitzea beharrezkoa den. Bitartekaritza, bitarteko izan, biren artean bitarteko izan, erdian egon edo bitarteko izan zerbaitetarako.

Hazitegiak erdian kokatzen da, bai, baina ez biren artean, baizik eta sorkuntza-prozesuetan parte hartzen duten eragileen triangelu baten erdigunean: artistak, kultur ekipamenduak eta herritarrak. Eta bitarteko izan nahi du, batetik, gauzak egiteko modu berriak eskaintzeko, artisten isolamendua nolabait arintzeko; eta, bestetik, ekipamenduei dagokienez, ateak zabaldu eta aukerak handitzeko. Bitarteko bat, azken finean, proposamen artistikoen eta herritarren artean batzuetan izaten den distantzia murrizteko.

Azken 3-4 urteak daramatzagu lan horretan. Programak eta jarduerak egin ditugu; bertan, aktore horiei nolabait egokitu zaizkien rolak berriz hausnartzen ditugu, eta herritarrei aukera eskaintzen diegu pausoa aurrera eman dezaten eta proposamen artistikoetan parte har dezaten beste eragile bat gehiago izango balira bezala.

Horrela, ikusleak gertukoago sentituko du ikusten ari dena eta bereganatzeko modua aurki dezake. Alegia, proiektu artistikoak prozesu partekatu bihurtzen dira, non bakoitzaren esperientziak eta ezagutzak elkartrukatzen diren.

Hazitegiak-ek proiektu erakargarri gehiago dauzka esku artean datozen hilabeteetarako. Gure proposamenak Europara hedatzen dira *Corners of Europe* proiektuaren eskutik eta artisten elkartrukerako *Joan-etorriak* Europako programaren bidez. Oraindik ere, hamar dantza-egonaldi dira egitekoak Hegoaldearen eta Iparraldearen artean *Mugalariak*-en hirugarren edizioaren barruan. Era berean, bukatuta dauden hainbat lan –hiriko sei museotan egindako

Corners of Europe-*eko interbentzioetako bat*. *Una de las intervenciones de* Corners of Europe.

Izaera esperimentala dauka, eta, horregatik, ondo egindakoak eta hutsegiteak izan ditu

Labore programa, esaterako– eta Hiriburutzaren kultura programarekin lotutako jarduerak argitaratu egingo dira; horrela, parte hartu dutenen esperientzia hutsa izateaz gain, guztientzako erreminta erabilgarri izango da etorkizunerako.

Hazitegiak-ek izaera guztiz esperimentala dauka, eta, horregatik, ondo egindakoak eta hutsegiteak izan ditu. Baina, dudarik gabe, aukeren bide bat zabaltzen digu artearen eta kulturaren alorrean.

Mediación es una palabra que comienza a resultar familiar al visitar un museo, un teatro o cualquier espacio relacionado con prácticas artísticas. Pero se trata de un término que no tiene una única definición. Lo habitual es que nos venga a la mente la imagen de dos partes enfrentadas entre las que es necesario crear un puente. Mediación, mediar, mediar entre dos, estar en el medio de o ser el medio para.

Hazitegiak se coloca en el medio, sí, pero no de dos, sino de un triángulo formado por los agentes que participan en los procesos de creación: artistas, equipamientos culturales y ciudadanía. Y trata de ser el medio para sumar a las relaciones que ya existen nuevas maneras de hacer que mitiguen el aislamiento de las y los artistas, por un lado, y abran las puertas y las posibilidades de los equipamientos, por otro. Un medio para conseguir, en definitiva, reducir la distancia que en ocasiones existe entre las propuestas artísticas y la ciudadanía.

A esta tarea hemos dedicado los últimos 3-4 años, llevando a cabo programas y actividades en los que repensamos los roles que parecen asignados a estos actores, para poder ofrecer a la ciudadanía la oportunidad de saltar la barrera y participar en la propuestas artísticas como un agente más. Es así como alguien puede sentirse más cerca de lo que ve y puede encontrar la forma de apropiarse de ello. Hablamos, pues, de proyectos artísticos que se convierten en procesos compartidos en los que cada uno aporta y recoge experiencias y conocimientos.

La labor de Hazitegiak continúa durante los próximos meses con proyectos apasionantes. La dimensión europea de nuestras propuestas llega de la mano del proyecto *Corners of Europe* y el programa europeo de intercambio de artistas *Joan-etorriak*. Más de 10 residencias de danza y teatro quedan aún por desarrollar entre Hegoalde e Iparralde en la tercera edición de *Mugalariak*. Y trabajos ya finalizados como el programa *Labore* realizado en 6 museos de la ciudad, o las actividades anexas

Por su carácter experimental, Hazitegiak ha tenido aciertos y errores

al programa cultural de la Capitalidad, se recogerán en publicaciones de forma que no queden solo en la experiencia de quienes han podido participar, sino que también puedan convertirse en una herramienta útil para todos en el futuro.

Hazitegiak ha iniciado así un recorrido que, por su carácter abiertamente experimental, ha tenido aciertos y errores. Pero, sin duda, nos abre una vía de posibilidades en el sector del arte y la cultura.

KRONIKA
CRÓNICA

Begoña del Teso
KAZETARIA PERIODISTA

Itsas zeluloidea
Celuloide marino

KALEBEGIAK ZINEMA CINE **Estreinaldia** Estreno Antonio Elorza belodromoa Velódromo Antonio Elorza Irailak 21 de septiembre Moriarti Produkzioak, Larrotxene Kultur Etxea/Donostia Kultura Producciones Moriarti, Centro Cultural Larrotxene/Donostia Kultura
kalebegiak kalebegiak.eus Euskara Castellano

La ballena real *filmaren errodajea*. *Rodaje de la película* La ballena real.

Bitxia. *Kalebegiak* obra partekatu eta kolektiboa osatzen duten zeluloide metro gehienetan agertzen zaigun Donostiari kresala eta aparra dario. Olatuak eta olatu-hormak. Itsas zabala eta abordatzeak. Aingurak, baleak eta naufragoak. Ez da kaledun, tabernadun eta mendidun Donostia bat. Nautikoa da. Itsas Donostia bat. Gabarratzarduna, estropadaduna eta arpoiduna. Ikus-entzulea zipriztintzen duten erreferentzia guztiak urezkoak dira.

Hasieran, Herguera eta Izibeneren animazioarekin, urpeko danborrariek Kantauri itsasoko hondoan jotzen dute eta Paul Valery, Nemo edo betiko hondoratutako Pequod datozkizu burura; eta bukaeran, jadanik bi ordu igaro direla, Espainiako erregina batek gertutik ikusi nahi du balea bat, eta gogora etortzen zaizu Ramiro Pinillaren ipuin bat, non barnealdeko dama boteretsu eta zahar batek Leviatana ikustea exijitzen duen, eta hura harrapatzen dutenean eta zelaietan eta basoetan zehar arrastaka eramaten dutenean, liburuaren orrialdeak ere itsas ustelkeriaz zikintzen dituen.

Bitxia. Ez dauka ez Ulia, ez Urgull, ezta Igeldo usainik ere. Santa Klaratik pixka bat. Baina Santa Klara irla bat da, kaioen lurraldea, itsas talaia. Ez da *Tasio* arnasten, baizik eta *27 ordu*. Izan ere, *Kalebegiak*-en ez gara zeluloide edo lurrekoak, baizik eta ozeano, sare, lema eta fotogramadunak. Eta ez da ondorio txarra hori. Onenak beti izan dira itsasokoak. Jake Straw, Conrad... Blas de Lezotik hasi eta Bogart-eraino *Afrikako erregina*-n.

Curioso. La Donostia que aparece en la mayoría de los cientos de metros de celuloide que componen esa obra compartida y colectiva que es *Kalebegiak* es de salitre y espuma. De olas y rompeolas. De alta mar y abordajes. De anclas, ballenas y náufragos. No es una San Sebastián de calles, bares y montañas. Es náutica. Naval. De gabarrón, regatas y arpón. Todas las referencias que golpean al espectador son de agua.

Desde aquel comienzo, el de la animación de Herguera e Izibene que con sus tamborreros submarinos que tocan en el fondo del Cantábrico te hace pensar en Paul Valéry, Nemo o el Pequod hundido para siempre hasta ese final que llega dos horas después cuando una reina de España quiere ver de cerca una ballena y entonces recuerdas el cuento de Ramiro Pinilla donde una vieja y poderosa dama de tierra adentro exige ver al Leviatán y cuando lo capturan y han de arrastrarlo por campos y bosques impregna de putrefacción marina hasta las mismas hojas del libro.

Curioso. No huele ni a Ulia ni a Urgull ni a Igeldo. Un poco a Santa Clara. Pero Santa Clara es isla, territorio de gaviotas, atalaya marina. No se respira *Tasio* sino *27 horas*. No somos en *Kalebegiak* de celuloide y tierra sino de océano, redes, timón y fotogramas. Y no es mala conclusión esa. Los mejores siempre fueron marinos. De Jake Straw a Conrad. De Blas de Lezo a a Bogart en *La Reina de África*.

Hedabideen aurreko aurkezpena. *Presentación ante los medios de comunicación*. ARITZ DENDATEGI

ZINEMALDITIK ARETO KOMERTZIALETARA
DEL FESTIVAL A LAS SALAS COMERCIALES

Donostia Zinemaldiko ekitaldirik jendetsuenetakoa. Antonio Elorza belodromoan egin zen *Kalebegiak* filmaren estreinaldia, irailaren 21ean, 3.000 ikus-entzuleren aurrean. Donostiaren gaineko begiradak. 12 begiradaren atzean, zinema zuzendariak. Hasiberriak batzuk; izen kontsakratuak beste batzuk. Baina maila berean hasiberrien lanak eta beteranoenak.

Ondorengo zuzendariek hartu dute parte: Koldo Almandoz, Asier Altuna eta Telmo Esnal, Luiso Berdejo, Daniel Calparsoro, Iñaki Camacho, Borja Cobeaga, Maria Elorza eta Maider Fernandez, Isabel Herguera eta Izibene Oñederra, Ekain Irigoien, Julio Medem, Gracia Querejeta eta Imanol Uribek.

"Espero dugu filma urriaren 14an areto komertzialetara heltzen denean, Zinemaldian piztutako grinari eustea", adierazi du Jorge Gilek, proiektuaren koordinatzaileak. DSS2016EUren eta Moriarti Produkzioak-en artean ekoiztutako egitasmoa, hiriburuari buruz.

El pasado 21 de septiembre se estrenaba en el Velódromo Antonio Elorza, ante 3.000 espectadores, la esperada *Kalebegiak*. Una mirada sobre San Sebastián. 12 miradas distintas y 12 directores locales. Algunos, noveles o con corto recorrido, junto con otros con una trayectoria mas extensa. Pero todos al mismo nivel: Koldo Almandoz, Asier Altuna y Telmo Esnal, Luiso Berdejo, Daniel Calparsoro, Iñaki Camacho, Borja Cobeaga, Maria Elorza y Maider Fernandez, Isabel Herguera e Izibene Oñederra, Ekain Irigoien, Julio Medem, Gracia Querejeta e Imanol Uribe.

"Esperemos que, cuando llegue a las salas comerciales el 14 de octubre, la película mantenga la misma expectación que ha creado durante la proyección en el Festival de Cine de San Sebastián", ha afirmado el coordinador del proyecto Jorge Gil. Un proyecto fraguado entre DSS2016EU y Producciones Moriarti.

INSTAGRAM

Ikusi nolako irudiak utzi dizkigun azken hilabeteak.
Descubre las imágenes que nos ha dejado el último mes.

#hitchcock #64ssiff

#biziz #enbaxadak

#kalebegiak #64ssiff

#2016bidea

GABON, TXIRRITA
FACEBOOK

***Gabon, Txirrita* antzezlanak sareetan ere eman du zeresana Facebooken egindako bertso lehiaketari esker. Ane Beloki izan da garailea zozketa bidez.**
La representación *Gabon, Txirrita* ha dado que hablar en las redes sociales por el concurso de bertsos realizado a través de Facebook. La ganadora por sorteo ha sido Ane Beloki.

Ana Ana
Europako Kultur Hiriburu
ni nauzuen bitartian,
hamaika lagun gerturatu zait
gozatuz bake eztian
gure jendeaz eta hiriaz,
egitaraua betian,
nere aipamenak izango dira
beste larogei urtian!

Rosa Ruiz
Kontinente zahar honetan,
kultura indar guztian
islatzen du gaur hiriburutzak,
Easo eder Donostian,
kapitalaren azken danborren
burrunba, soinu joatian,
nere aipamenak izango dira
beste larogei urtian!

Silvia Lm
Kresalaren fereka samurra
Nabari da Urgull mendian,
Olatuen ahots garbia,
Berriz, Kontxako badian,
Europan Kultur hiriburua
Ospatzen da Donostian,
Nere aipamenak izango dira
Beste larogei urtian!

Ane Beloki
Txirrita zena aspaldi xamar
Sartua denez lurpian
Bere bizitza ezautu nahian
Egon naiz bizi guztian
Antzerki hori ikusiz gero
Zorauko naiz bat-batian
Nere aipamenak izango dira
Beste larogei urtian!

Xabier Iribar
Donostia hiriak irabazi du
fama Europa partian
San Juan ontzia naiz eta sortua
hainbat langilen artian
Lengo erara eraikia naiz
ez naiz egongo urpian
Nere aipamenak izango dira
beste larogei urtian!

Eluska Ugalde Goldaratzena
Donostia Kultur Hiriburua
ez da guretzat kaltian
Hori dela ta ekitaldiak
makina bat Donostian
Nere izena zabalduz noa
ondo Europa guztian
Nere aipamenak izango dira
beste larogei urtian!

Ilargi Betea
Itsasontzia San Juan izena
eraikia Donostian
itsaso denak nabigatzeko
gure Europa guztian
hara ta hona ibiliko naiz
ta ez inoren kaltian
nere aipamenak izango dira
beste larogei urtian!

GURE APP-AK
NUESTRAS APPS

Donostia 2016ren agenda, zure sakelean. Donostia 2016ren agenda osoa gertutik jarrai dezakezu gure *app*-arekin (Eskuragarri iOS eta Android sistementzat).
La agenda de San Sebastián 2016, en tu bolsillo. Puedes seguir toda la agenda de San Sebastián 2016 a través de nuestra app (disponible para iOS y Android).

***Euroku*, Hiriburutza hobeto ezagutzeko jolasa.** *Euroku*-k herritarren parte-hartzea sarituko du. Dagoeneko 40.000 partidatik gora jokatu dira eta ehun sari baino gehiago banatu ditugu.
***Euroku*, el juego para conocer mejor la Capitalidad.** *Euroku* premia la participación ciudadana. Ya se han jugado más de 40.000 partidas y hemos repartido más de un centenar de premios.

***Rekording*, soinu-banda Donostiaren memorian barrena.** Jaitsi *app*-a eta Donostia ezagutu benetako istorioen bidez.
***Rekording*, viaje sonoro por la memoria de San Sebastián**. Descárgate la app y descubre Donostia a través de historias reales.

AZAROAN ETORRIKO DENA
LO QUE VENDRÁ EN NOVIEMBRE

Nazioarteko sona handiko idazleen elkartzea
Encuentro entre escritores de prestigio internacional

Chejov vs. Shakespeare **proiektuan idazle europarrek literaturari, gatazkei eta idazleen egitekoari buruzko gutunak trukatuko dituzte. Atzerriko izen handiko idazleak elkartuko dira euskal idazleekin azaroaren 7tik abenduaren 16ra egingo diren zortzi saiotan, eta trukaketa bakoitzetik liburu bat sortuko da.**

En el proyecto *Chejov vs. Shakespeare* escritores europeos intercambiarán cartas sobre la literatura, los conflictos y el papel del escritor. Serán ocho sesiones que sucederán entre el 7 de noviembre y el 16 de diciembre y donde se reunirán escritores vascos con escritores de renombre internacional y de cada encuentro saldrá un libro.

Gizartea bazterketaren prismatik
La sociedad desde el prisma de la exclusión

Kartzela, psikiatria-zentroetan... daudenei mundu sinboliko berriak sortzea da *Lekurik gabe, denborarik gabe* izeneko proiektuaren helburua. Ikerketa lan bat burutu da, eta horren emaitza aintzat hartuta erakusketa egingo dute Koldo Mitxelenan.

El proyecto *Sin lugares, sin tiempo* fomenta la creación de nuevos mundos simbólicos por parte de personas internadas en cárceles, centros psiquiátricos... Se ha elaborado un trabajo de investigación y el resultado será una exposición en el Koldo Mitxelena.

Komikiak sukaldatzeko ordua
La hora de cocinar cómics

KomikiLabea **proiektua komikiaren munduan barneratuko da, eta haren ertz guztiak aztertuko ditu; batetik, alderdi artistiko eta sortzailea, eta bestetik, arte horrek erabiltzen duen hizkuntza, edozein konturen eta gairen gainean jarduteko gai dena. Tailerrak, hitzaldiak eta erakusketak izango dira.**

KomikiLabea explora el mundo del cómic y sus diversos ámbitos tanto desde el punto de vista artístico y creativo como desde el lenguaje que este arte, capacitado para abordar cualquier cuestión y temática, utiliza directa o transversalmente. Se realizarán talleres, conferencias y exposiciones.

Mezenak, babesleak eta laguntzaileak
Mecenas, patrocinadores y colaboradores
Mécènes, partenaires et fournisseurs
Patrons and sponsors

OROKORRAK
GLOBALES
GÉNÉRAUX
GLOBAL

BEREZIAK
ESPECIALES
SPÉCIAUX
SPECIAL

PROIEKTUKOAK
DE PROYECTO
DE PROJET
PROJECT

KOMUNIKABIDE OFIZIALAK
MEDIA PARTNERS
MOYENS DE COMMUNICATION OFFICIELS
MEDIA PARTNERS

LAGUNTZAILE OROKORRAK
COLABORADORES GLOBALES
FOURNISSEURS GÉNÉRAUX
GLOBAL IN-KIND SPONSORS

LAGUNTZAILE BEREZIAK
COLABORADORES ESPECIALES
FOURNISSEURS SPÉCIAUX
SPECIAL IN-KIND SPONSORS

PROIEKTU LAGUNTZAILEAK
COLABORADORES DE PROYECTO
FOURNISSEURS DE PROJET
PROJECT IN-KIND SPONSORS

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK
CON EL APOYO DE
INSTITUTIONS COOPÉRATIVES
WITH THE SUPPORT OF

DSSINNOVA 2016

ESKERRIK ASKO

Eskaini dieten laguntzagatik Donostia 2016k eta Donostiako Sustapenak eskerrak eman nahi dizkiete DSSInnova2016ko kide guztiei, lurraldearekin konprometitutako eta berrikuntzaren arloan erreferente diren enpresa eta eragileei, alegia.

San Sebastián 2016 y Fomento de San Sebastián agradecen el apoyo de todos los miembros de DSSInnova2016, la comunidad de empresas y agentes comprometidos con el territorio y referentes en innovación.

ORMAOLA · ate · azti tecnalia Transforming Science into Business · Base Fegemu Group · Beroalde · BSK Legal & Fiscal

CIALT · Danobatgroup · DFG · Druck · Elkargi SGR · Geminys · larrialdiak.net · Handitu · idom · ieteam · IK4 Research Alliance · ikei · ikertalde · iKOR Spain Mexico China · Ikusi velatia · Indar An Ingeteam brand · Irisbond · Kirolbet · La Perla · Lanik · LKS · ope Consultores · San Bartolomé Marca · sayma · Spyro · sureuskadi · TAK · tecnalia Inspiring Business

- **BAT EGITEKO ESKABIDE-ORRIA WEBGUNEAN** / FORMULARIO DE ADHESIÓN EN LA WEB:

DSSINNOVA2016.EUS

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA
DSS2016.EU

donostiasustapena
fomentosansebastián